

ANALISIA: Oinordekorik gabe hil
da Islam Karimov, Uzbekistango
agintari goren eta bakarra > 7

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Egin herri, eta ez erridikulua

MIKEL ZUBIMENDI > 11

2016ko irailaren 10a | X. urtea • 484. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



HONDARRIBIA, GREZIARA JOSIA

HONDARRIBITIK KATSIKAS ERREFUXIATUEN KANPALEKURA ABIATU ZIREN; BOST EMAKUME, KAZETARI BAT ETA
HERRIAN BILDUTAKO ARROPA TONA BATZUK. BILDUTAKO ARROPAK NORBERAREN NEURRIRA ETA GUSTURA JOSTEN
HASI ETA ELKARTASUN SARE ZABALAGOA OSATU DUTE. ETA SAREA JOSTEN SEGITZEN DUTE. > 12 Asier PEREZ-KARKAMO

Oklahoma: «fracking»-ari buruzko eztabaida piztu duen lurrikara 04

Islam Karimov, «Tamerlan txikia», oinordekorik gabe hil da 07

Hondarribia eta Grezia arteko elkartasun zubia 12


Pilotari profesionala izan nahi duen neskari buruzko filma 18

Elkarrizketa: Mikel Ezkerro, Euskal Herriaren dibulgatzailea 22

Maidar Uriarte: Adiorik ez 26

Infraganti: Leire Elzaurdia 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Esaten zenidaten, baina ezin nuen sinistu
- 10 **Oier Gorosabel:** Pertsona sedentarioen mina
- 12 **Mikel Zubimendi:** Egin herri, eta ez erridikulua
- 16 **Unai Iturriaga**
- 20 **Gaizka Amondarain:** Gertatzen ari da
- 21 **Garazi Goia:** Hegazkinean, amaieraz
- 27 **Saioa Iraola:** Bilaketa
- 27 **Joxean Agirre:** Asto belarriekin
- 30 **Iratxe Esnaola:** Whatsapp, Facebook... Telegram!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoako Foru Aldundia

{ datorrena } Iñaki Soto

Esaten zenidaten, baina ezin nuen sinistu

Astebete da Facebook-en kontua ireki nuenetik. Esaten zenidaten, baina ezin nuen sinistu. Guztiak bertan zaudete! Duela hamar urte, nire lagun batek profila ireki zuela esan zidanean, barre galantak egin genituen. Orain beregana jo dut aholku bila. Lagun gehienek –hemen «lagunak» diodanean bere jatorrizko zentzuan ulertu, arren–, ongi etorria eman didate. «*Fucking hell*», «flipatuko duzu», «*jungle*», «lasai hartu» eta antzekoak dira esaldirik erabilienak. Jakina, horrek ez nau lasaitu. Ondo ezagutzen nautenek tresna hau nire pertsonalitatearekin ez dela bat etortzen aurreratu didate. Batez ere lanagatik eta joerak ulertu ahal izateko ireki dut kontua, eta kuriositatea eta betebeharra nire pertsonalitatearen parte diren heinean, *handicap* hori gaindituko dudala espero dut.

Aste honetan ez dut kontu horrekin ezer egin. Nola nahi ere, erabiltzaile gisa lehenengo esperientziak izan ditut eta horiek nigan ezinegon sortu dute.

KODEAK, TAMAGOTCHIA ETA ALGORITMOA

Barka nazatela lagun birtual berriek, baita zahar birtualizatuek ere, oraingoz ez baititut sare honetan oinarritzkoak diren kortesia-kodeak erabili. “Lagun”, “gustatzen zait”, “partekatu”, “komentatu ezazu”... terminologiak azpiratu nau. Zalantzak ditut kodeak ulertzen ote ditudan ere, baina aurrerantzean aktiboagoa izaten ahaleginduko naiz. Hori bai, ematen duen lanak harritu nau. Tamagotchi bat bezalakoa da, etengabe lana ematen, iradokizunak egiten...

Artikulu honen berri ematen duen mezua izango da, ziur asko, bertan publikatuko dudan lehendabiziko gauza. Esan didatenez, Facebooken «filosofiaren» nahiko aurkakoa da hau, beren helburua bertan argitaratzea baita, ez erreferentzia egitea. Tira, algoritmoa nolabait gailenduko dela badakit. Baina funtzionamendua hobeto ulertu arte korronteari eusten ahaleginduko naiz. Alegia, ez dut kontrola galdu nahi.

KONTROL SOZIALA

Izan ere, banekien tresna honek ahalbidetzen zuen kontrol soziala ikaragarria zela, baina dimentsioak izutu

nau. Tranpa etengabea da, zure eta zure ingurunearen informazio ahalik eta gehien jaso, metatu eta prozesatzeko saiakera esplizitua da, lotsagabea izateraino. Iratxe Esnaolak behin eta berriz salatzen du hau gure egunkarian, zentzu handiz, azkenekoz ostegunean bertan [goo.gl/7l4UvD]. “Fraudebook” liburuko egilea den Vicente Serrano Marini ZAZPIKAN egindako elkarrizketa ere aipagarria da [goo.gl/YLxO21].

IDENTITATEA

Azken aipamen horretatik tiraka, sare honetan identitatearen sorkuntza nola ematen den deigarria eta kezagarria iruditzen zait. Adibidez, nartzisismoaren eta egozentrisismoaren sustapena oso nabarmena da. Jendeak lan handiak hartzen ditu irudi bat islatzen, alegia, islatu nahi duena kalkulatzeko. Literaturan autofikzioaren estiloaz dagoen eztabaidaz oroitu naiz eta, honen harira, Jo-

Facebookeko kontrol sozialaren dimentsioak izutu nau. Tranpa etengabea da, zuri buruz informazio ahalik eta gehien jaso, metatu eta prozesatzeko saiakera esplizitua da, lotsagabea izateraino

nathan Franzen-en sare sozialei buruzko purrustadaz gogoratu naiz [goo.gl/wVzUDR].

ESPERIMENTALISMOA

Maila batean bat nator Franzenen hainbat iritzirekin. Are gehiago arerioa Salman Rushdie bada. Egia da, ordea, esnobismoaren arriskua ere hor dagoela. Edonola ere, esperimentatzeko asmoz sartu naiz Facebooken. Komunikazio eta antolaketa mailan bitarteko bat iruditzen zait. Egunkarien hedapenean duen eragina itzela da, adibidez.

Esan bezala, denak bertan bazaudete zerbaitengatik izango da. Bertan egonda ez naiz bere aldekoago izango, espero dut; bere aurka zergatik nagoen zehatzago esan ahal izango dut, ordea. Eta bere birtualtasunak baliatu ahal izango ditut, bai lanerako bai aktibismorako. Beldurrik gabe, baina zuhurtiaz. •

OKLAHOMA

5,6 graduko lurrikarak«fracking»-aren ondorioei buruzko eztabaida eragin du

📁 INGURUMENA / joseangel.oria@gaur8.info

Gaur zortzi Oklahoma estatuko Pawne herrian ezohiko lurrikara bat izan zuten, AEBetako beste estatu askotan ere sentitu zutena. Ez zuen hildakorik eragin eta kalte ekonomikoak ere ez dira nabarmentzeko modukoak, baina ez zen ohiko astindu bat izan, haustura hidraulikoak eragindakoa baizik, bertako adituek uste dutenez.

Richter eskalan 5,6 gradukoa izan zen Oklahomako lurrikara, egun haietan Italiako Amatrice eta ondoko maki-na bat herri suntsitu zuena (6,2 gradu) baino askoz ere txikiagoa. Eragindako txikizio maila ere askoz apalagoa izan zen Oklahoman, eta hildakorik ez

zen izan (300en bat, Italian). Hala ere, askoz kezagarriagoa da AEBetako, hausnarketa serioa ekarri beharko lukeena, itxura guztien arabera gizakion jarduerak eragindakoa izan baita; *fracking* edo haustura hidraulikoak eragindakoa zehazki. Brad Sewell Pawneko alkateak hedabideei jakinarazi zien herri-ko eraikin batzuek kalte garran-

Orrialde honetako irudian, Pawneko herritar bat joan den larunbateko lurrikarak eragindako kalteei begira. Hurrengo orrialdean, haustura hidraulikoaren aurkako mobilizazio bat, Pennsylvanian. GAUR8

tzitsuak izan zituztela, Nebraskan, Chicagon, Memphisen, Missourin eta Texasen ere sentitu zuten astinduaren ondorioz. Mary Fallin Oklahomako gobernadoreak iragarri zuen adituak bidaliko dituela Pawnera, haustura hidraulikoaren teknika erabiltzen duten eremuak azter ditzaten. Gainera, Oklahomako Korporazio Batzordeak *fracking*-a erabiltzen duten konpainiei eskatu die teknika horrek eragiten dituen hondakinen mugimendua murrizteko, lurrikaren atzean egon daitezke-elakoan. Hondakin horiek jasotzen dituzten 37 putzu ixteko agindu dute (estatu osoan tankerako 4.200 putzu dituzte). **SISMIKOTASUNA, GORA** USGS AEBetako Geologia Zerbitzuak jakinarazi zuen lurrikara irailaren 3ko 07:02an izan zela. Epizentroa Pawnetik 14 kilometrorra izan zuen, orain bost urte



Oklahomako Korporazio Batzordeak haustura hidraulikoa erabiltzen duten konpainiei eskatu die teknika horrek eragiten dituen hondakinen mugimendua murrizteko

tankerako lurrikara bat jasan behar izan zuen eremuan. Bertan Oklahomako erakunde arautzaileek haustura hidraulikoaren hondakinen mugimenduen murrizketa agindu izan dute. Ez da harritzekoa, adituek emandako datuen arabera, bertako sismikotasuna 2008koa baino 600 aldiz handiagoa baita gaur egun, Oklahomako langileen %25i lana ematen dien jarduera ekonomikoaren eraginez.

AEBetako erdialdean, Texas estatutaren iparraldean, dagoen Oklahoman egunean bizpahiru lurrikara izaten dituzte, normalean txikiak, irailaren 3koa baino askoz ere txikiagoak. Baina haustura hidraulikoarekin hasi aurretik, urtean bat izaten zuten, bi asko jota. Orain, berriz, ehunka, eta gero eta suntsitzailagoak dira.

2013ko abuztuan GAUR8n kaleratutako erreportaje batean, Euskarazko Wikipedia entziklo-

pediara jo genuen *fracking*-a zer den azaltzeko: «Presio handiko fluido baten bidez harri-geruzak hausteko prozesua da haustura hidraulikoa. Petrolio edo gas naturala lurzorutik erauztea da helburua. Haustura-lan bakoitzean, putzu bat zulatzen da erreserbak dituzten harri-formazioetan. Presio handiko fluidoa injeztatzeak zartadura berriak sortzen ditu harkaitzean, erregai fosilen erauzte-tasak handituz».

INJEKTATUTAKO FLUIDOA

Haustura hidraulikoaren efektuen artean ageri dira lurrikarak. New Yorkeko Columbia Unibertsitateko Nicholas van der Elst ikerlariak "Science" aldizkarian orain hiru urte argitaratu eman zuen lan baten arabera, fluidoa injeztatzeak eta lurpean eragiten diren leherketek puntu kritikora eramaten dituzte failak eta leku horietan lurrikara

Oklahoma estatuan egunean bizpahiru lurrikara izaten dituzte, normalean txikiak. Baina haustura hidraulikoarekin hasi aurretik, urtean bat izaten zuten, bi asko jota

handi bat jasateko arriskua askoz ere handiagoa da. Haustura hidraulikoa erabiltzen duten konpainiek kontratatutako geofisikariek ere baieztatu izan dute lurrikarak eta haustura hidraulikoa erabat lotuta daudela, nahiz eta konpainia horietako buruek, jabeek, beti aurkakoa esango duten.

Ohio estatuko Youngstown herrian 4 graduko lurrikara izan zuten 2011n. Arthur McGarr USGS AEBetako Geologia Zerbitzuko geofisikariak garbi zeukan lurpeko jarduerak eragin zutela fenomenoak. Herri hartan beste 109 lurrikara izan zituzten

urtebeteko epean, eta, lurpeko jarduerari amaiera jarri zietenengan, lurrikarak ere amaitu egin ziren. Tankerako zerbait egin behar harkete Oklahoman, bai behintzat lurraren astindurik gabe bizi nahi badute.

GERO ETA HONDAKIN GEHIAGO

Gaur egun lurrikarak lurpean gordetako milioika tona hondakinekin lotzen dituzte zientzialariak; garrantzi gehiago ematen diete hondakin horiei (injektatutako ura, gatz eta beste ehunka gai kimiko), likidua injektatzeari berari baino. Hondakin horiek lurrazpiko putzue-

tan jasotzen dira, baldintza naturalak aldatuz.

Stanford etxeak iaz argitaratu eman zuen ikerketa baten arabera, Oklahoman azken hogeitau urteotan lurrazpiko putzu horietan sartutako hondakin kopurua bikoiztu egin da: 1997an hilean 80 milioi kupel injeztatzen baziren, 2013an 160 milioi kupelera iritzi ziren.

Estatuan sismikotasun handiena duten hiru eremuetan fenomenoak askoz ere larriagoak da, 1,6 milioi kupeletik 33 milioi kupelela pasa baitira. Ikerlariak uste dute horrenbeste hondakin pilatu izanaren eraginez, faila horiengan egindako presioa ikaragarri hazi dela, eta horregatik dituztela gaur egun horrenbeste lurrikara.

Fracking-ak eta lurrikarek kalteetako herriarrek hondakinen putzu kopurua mugatzeko exijitzen diete agintariei. Gainera, nahi dute lurrikarek kalte-



DIMOCKEKO URA ETA CABOT KONPAINIAREN GEZURRAK

tzen dituzten egiturak indartu ditzaten konpainiak behartzea. «Gertatzen ari dena nahikoa txarra da, pasa denak kalte handiak eragin baititu. Hala ere, orain arte zortea izan dugu, eta hemendik aurrera burua argi edukitzea tokatzen zaigu», adierazi du Richard Webster Public Justice erakundeko abokatuak.

USGS zerbitzuko adituek mapa bat egin dute lurralde bakoitzak lurrikara izateko duen arriskua azaltzeko. Beti bezala astindu naturalak izateko aukera nabarmentzeaz gain, lehen aldiz gizakion jarduerak eragindakoak ere kontuan hartu dituzte. Eta ondorioa oso argigarria da: AEBetako erdialdeko estatuak gaur egun Kaliforniaren pare daude, hau da, betidanik lurrikara natural ikaragarriak izan dituen estatuaren pare.

ZAZPI MILIOI LAGUN MEHATXUPEAN

USGSkoek egin duten maparen arabera, gizakiok eragindako lurrikara jasan dezaketen eremuetan zazpi milioi pertsona bizi dira. Leku horietan orain arte lurrikara txikiak izan dituzte (3 gradu artekoak), baina Oklahoman dagoeneko hiru izan dituzte 5 gradutik gorakoak.

Arazoetako bat da zientzialariek oraindik ez dakitela gizakion jardueraren ondorioz sortutako lurrikara horiek besteak baino suntsitzaileagoak izatera irits daitezkeen ala ez. Orain arteko bilakaerak aditzera ematen du gero eta arriskutsuagoak izango direla.

Mark Petersenek zuzendu zuen USGSkoen mapa egin zuen taldea. Bere ustez, AEBetako eremu jakin batzuetako lurrikara arriskua ikaragarri hazi da gizakion jardueraren eraginez, eta, gauzak aldatu ezean, hazten jarraituko du. USGS zerbitzuak 2014an egin zuen mapak, adibidez, zioen Dallas-Fort Worth eremuan ia ez zela lurrikara arriskurik, baina aurreko egindako mapan oso toki arriskutsu moduan ageri da. «Dallas Morning News» egunkariak 5,6 graduko astindu batek eragingo lukeen txikizioa deskribatu du: eraikinak eta dikeak txikituta, apokaliptikoa JR famatuaren Dallasen.

Haustura hidraulikoak dituen efektu kaltegarrien inguruko eztabaidan lurrikara arriskuak hartu du, edo hartzen ari da, orain urte batzuk uraren kutsadurak zuen protagonismoa. Baina horrek ez du esan nahi *fracking*-ak ura kutsatzen ez duenik, agentzia federal batek maiatzean argitara emandako txosten batean oso garbi esaten denez. Josh Fox zinemagileak, 2010ean aurkeztu zuen «Gasland» izenburuko dokumentalean eman zuen ezagutzera Pennsylvaniako Dimock herrikoen (1.500 biztanle) egoera. Cabot Oil & Gas konpainiak esan zuen herritarren salaketak ez zirela kontuan hartzeko modukoak, baina ATSDR Gai Toxikoen eta Gaixotasunen Erregistro Agentziak egin duen ikerketak ondorioztatu du Dimockekoek arrazoa zutela, eta konpainia gezurretan ari zela.

Era honetan azaldu genuen gaia GAUR8n 2013ko abuztuaren kaleratutako erreportaje batean: «AEBak gas ez konbentzionalaren ustiaketan lehenengo herrialdea izatera iristeko bertako herritar askok oso baldintza eskasetan bizi behar izan dute. Etxeko kanilako ura edaterik ez dute, oso usain txarra eta kolore susmagarria duelako. Kutsadura horren berri aurretik inork eman ez zenez, denbora askoan kanilako ura edan eta gaixotu egin dira. Kontuak eskatzera konpainiako buruengana joan, eta Kafkaren liburuetaiko protagonistek bezala sentitu behar izan dute».

«*Fracking*-a aspaldi hasitako eskualde batzuetan abeltzaintza da jarduera nagusia –esplikatzeko genuen orain hiru urte–. Abereek ilea nola galdu duten erakutsi digu Fox zinemagileak. Haustura hidraulikoak kutsatutako ura


baino ez dute edateko, eta gaixotu egiten dira, jakina. Horien jabeek beren ezintasuna adierazten dute kameraren aurrean. Filmean ageri den beste pasarte ikusgarri batean *fracking*-ak kaltetutako herritar batek pizgailu bat pizten du kanilaren ondoan, eta urak su hartzen du! Dena gezurra dela esaten diete konpainiakoek, edo ezin dela frogatu uraren kutsadura beraiei jardueraren eraginez sortu denik. Kasu askotan dirua ematen zaie kaltetuei, inoiz ezer ez salatzeke konpromisoaren truke. Horrela erosten dute hain beharrezkoa duten isiltasuna».

ATSDR agentziak aurreko plazaratu duen lanak aditzera ematen du EPA AEBetako Ingurumena Babesteko Agentziak Cabot konpainiaren konplize gisa jokatu izan duela. Dimockeko Carter kaleko etxebizitzak aztertutako ondoren, EPA agentziak 2012an ondorioztatu zuen bertako ura ez zela hain txarra, eta ez zegoela aparteko neurririk hartu beharrik, Shawn M. Garvinek adierazi zuenez. Cabotek berak eta haustura hidraulikoa erabiltzen duten beste konpainiek berehala txalotu zuten lana, eta *fracking*-aren aurkako estatubatuarrei berriz leporatu zieten garapenaren aurka egotea.

EPA agentziak bere azterketa egiteko erabili zuen ur bera erabili du orain ATSDR agentziak bere ikerketa egiteko. Baina ondorioa aurkakoa da: «27 putzu pribatutan aurkitu dugu ura kutsatuta, osasuna kalte dezaketen gai kimikoak baitzeuden. Beste 17 putzutako urak arrisku fisikoren bat eragin dezake eta ez da komeni edatea». Txostenak zehazten du zer gai diren uretan aurkitutakoak (arsenikoa, litioa eta 4-klorofenil fenil eterra, besteak beste), eta Carter kaleko putzuetan ageri ziren kontzentrazioan osasuna kaltetzeko gauza direla.

Gainera, aztertutako bost etxetan ura metanoarekin nahastuta zegoen eta sute arrisku handia zuten bertan. Leherketa arriskua ere aipatzen du lanak. Beste hamabi etxetan ere ageri zen metanoa, baina ez horrenbeste. Aipatzeko modukoak ziren urarekin nahastuta zetozen metalak eta gatzak ere.

EPA agentziak ez zuen garbi jokatu 2012an, herritar bakoitzari bere etxeari zegokion analisia baino ez baitzion erakutsi. «Orrialde honetan ageri diren baloreei begira nago, hemen eserita. Onartutako maila baino gorago nago, baina oraindik esaten didate ura edateko modukoa dela», adierazi zuen Nolan Scott Elyk. «Los Angeles Times» egunkariak 2013an egin zuen ikerketa baten arabera, EPA agentziako langileek eta zientzialariek beraiek ere bazekiten ur hura ez zela edateko modukoa.



Mark Ruffalo aktorea Dimockeko urarekin, Obamari energia garbien aldeko apustua eskatzen.

{ analisia } **Dabid LAZKANOITURBURU**

«Tamerlan Txikia» hil da


Sobietar Batasuna desegin zenean, 1991. urtean, inperio eurasiar eta «sozialista» osatzen zuten hamabost errepublikek bakoitzak bere bideari ekin zioten. Ordutik pasa den irailaren 2ra arte, presidente bakarra izan du Uzbekistango errepublikak, Islam Karimov.

Abuztuaren 27an burmuinean odol-isuri larria pairatu zuen Islam Karimovek, eta, ospitalera eraman ostean, hiltzat jo zuten hainbat iturri ez ofizialek. Sei egun behar izan zituen, ordea, erregimenak bere heriotza onartzeko. Koman omen zegoela-eta, 25 urtez Erdialdeko Asiako errepublika sobietar ohien artean popula-

Oinordekorik gabe zendu da Islam Karimov, Uzbekistango agintari goren eta bakarra. Hainbeste miresten zuen Tamerlan konkistatzaileari antzera gertatu zitzaion. Baina oraingoan ez da Estatua suntsituko. Errusiak eta AEBek «Tamerlan txikien» beharra dutelako.

tuenaren agintari goren eta bakarra nola berpiztu aritu omen ziren Alemaniako, Finlandiako eta Errusiako hainbat mediku-espezialista. Hori da behintzat hiltzorian egunak eta egunak eman zituen Francisco Franco diktadore espainolaren kasua gogora ekarri duen Karimoven heriotza luzea azaltzeko emandako bertsio ofiziala.

78 urterekin heldutako Karimoven heriotzaren inguruko sekretismoak, ordea, ez du inor ustekabea hartu. Eta ez soilik Karimovek agintean betetako mende laurden luzean autoritarismoa izan delako nagusi, erregimenak bere ondorengo izendatzeko nahiko arazo izan dituelako eta dena ahalik eta hobekien lotuta ixtea delako lehentasuna, baita



Islam Karimoven ehorzketa, Samarkandan.
AFP

makurtuta eta errepresiopean bizi den herria ez ote den behingoz oldartuko beldurra nagusi delako ere agintarien artean.

«Komunista»

Uzbekistanek independentzia lortu aurretik boterean ondo trebatua zegoen jada 1938an Samarkandan –Zetaren Bideko hiri famatuan– jaio zen Karimov. Umezurtza izanik, umezurztegi batean eman zituen lehen urteak eta mekanika eta ekonomia ikasi zuen gaztetan.

Sobietar Batasunaren garaia zen eta Alderdi Komunistako kide egin zen. Aparatuaren barnean maila guztiak gainditu eta 1989an Uzbekistango So-

bietar Errepublikako presidente izendatu zutenerako Finantza ministroa zen. Hala ere, iturri ez ofizialek diotenez, Karimov sekula ez zen boterera iritsiko aspalditik, ehunka urtetan, herrialdean nagusi izan diren bi klanetako baten laguntza izan ez balu, bere jaio-terriko klanarena hain zuzen. Antza, Tashkent egungo Uzbekistango hiriburuko klanaren aurkako lehia bizi eta historia duen Samarkandako klane-ko buruak, Ismail Jurabekovek, Karimov gaztea aukeratu zuen ordurako atzematen zen Moskuren agindupetik kanpoko Uzbekistan «askerako» trantsizioa zuzentzeko.

Karimovek ez zuen, ordea, behin trantsizioa amaituta bo-

terea uzteko inolako asmorik. 1991n Uzbekistango presidente izendatu zuten, eta, 1995ean, erreferenduma bultzatu zuen bere agintaldia 2000. urtera arte luzatzeko. 2002an beste plebizitu bat deitu zuen legealdiak bost urtetik zazpira luzatzeko. Ordutik hil arte, hauteskunde guztiak irabazi zituen, azkenak 2015eko martxoan; botoen %90etik gora eskuratu omen zituen, noski, inolako oposiziorik izan gabe.

Karimovena ez da, hala ere, kasu bakarra. Asia Erdialdeko sobietar errepublika ohi guztietan bertako agintari komunistak nolabaiteko diktadore bihurtu dira, eta, ahal izan dutenek, dinastia berri bezain iraunkorrak eratu dituzte. Adi-

tuek diotenez, agintariok komunistak baino, sobietarrak ziren. Errusiako errepublika sobietarra bera ere norainoko komunista edota sozialista zen inguruko eztabaida alde batera utzita, argi dago Kremlinak bazekiela, eta badakiela, herrialde ezberdinetako klan eta agintari politikoeekiko malgutasuna erakusten.

Independentzia eman ostean, hasiera-hasieratik saiatu da Errusia, are gehiago Vladimir Putin Kremlinera iritsi zenetik, Asiako errepubliketako agintariek harremanak estutzen. Autoritarismoa ez da sekula arazo izan Moskurentzat, are gutxiago «demokrazia soberanoa» bere egiten duen Errusia-ko presidentearentzat.

Iazko azaroan egindako beheko argazkia da Islam Karimovi ateratako azkenetarikoa.
Brendan SMIALOWSKI | AFP



Bertako Gengis Khan

Karimovek berak ere sekulan ez zuen ezkutatu Tamerlanen jarraitzaile sutsua zenik. Konkistatzaile nomadarik handienatarikoa, Gengis Khan Mongolen Inperioko agintariarekin alderatua izan da Samarkandan 1336an jaioetako Tamerlan. Uzbekistanek aberriaren aita-tzat duen Samarkandako erregeak Erdialdeko Asia osoa eta Indiako, Errusiako hegoaldeko nahiz Turkiako hainbat lurralde konkistatu zituen. Hala ere, uzbeko turkofonoen agintariak ezin izan zuen estatu bat eratu eta inperioa bere heriotzarekin batera, 1405ean, desegin eta lurperatu zen. Historian ezaguna da baina bereziki bere konkista militarrengatik eta bere etsai zein mendekoe-zioten beldurragatik.

Independentzia lortu zuenetik, Samarkandan lurperatutako Tamerlanen oroimena lantzen aritu da Uzbekistango



erregimena. Helburua argia izan da: 150 urte luzez lehenik Errusiaren eta gero Sobietar Batasunaren menpe egondako uzbekistandarren artean aber-tzaletasuna hedatzea.

Vladimir Putin Errusiako presidenteak omenaldia eskaini dio aste honetan bertan Islam Karimovi bere hilobian.
Alexei DRUZHININ | AFP

Aitzakia errepresiboa

Boterea eskuratu zuenetik oposiziorik ez zuela onartuko argi utzi zuen XX. eta XXI. mendeen arteko “Tamerlan Txikiak”. Hasiera-hasieratik, Asia Erdialdeko ingurune gatazkatsuen erdi-erdian den Uzbekistango Estatuaren etorkizun politiko eta ekonomikoa bermatze aldera, beste guztia, askatasunak barne, sakrifika-tzeko gertu egon da Karimov. Ez dago esan beharrik, noski, etorkizun politiko eta ekonomiko horren baitan bere gertukoak aberastea eta botere osoa bereganatzea lehenetsi dituela.

Horretarako, gainera, aitzakia ezin hobia izan zuen hasieratik: alderdi islamisten aurka-ko borroka lehenik, eta, gero,

jiihadisten aurkakoa. Gainera, 2001eko irailaren 11ko atentatu-
tuen ostean, batez ere Afganistanen aurkako gerraren hasierarekin, Washingtonen babes osoa lortu zuen Karimovek. Errusiarekiko menpekotasun osotik libratzeko aukera ezin hobia izan zuen agintariak eta Uzbekistanek base militar bat eskaini zien AEBei, Mosku-
ren haserrera.

Arabiarretatik harago

Islama Meka eta Medinako tri-
buen artean sortu zela-eta, ba-
dirudi arabiarren kontua baino ez dela. Aldiz, Erdialdeko Asiak izugarritzko garrantzia izan zuen hasieratik bertatik isla-
maren bilakaeran, batik bat arabiarrek 710. urte inguruan Bujara eta Samarkanda hiriak konkistatu zituztenetik.

Sobietar Batasunak gogor egin zuen iraun zituen 70 urte-
etan erlijioen aurka, tartean isla-
ma. Baina ez zuen lortu garra guztiz amatatzea. Gainera, So-

bietar Batasuna desagertzean sekulako berpizkundera ezagu-
tu zuen islamak, ordura arte zapalduta izandako herriak be-
re kulturaren ardatzetako bat bezala barneratuta baitzuen. Sufien kofradiek, sobietarren kontrolpetik kanpo jendarte-
an ezkutuan bizi ziren *mulla* uga-
riek, eta, Uzbekistanen kasuan, *otin* andereño islamiarrek tra-
dizio islamikoa mantentzea lortu zuten.

Independentziaren ondoren-
go lehen urteetan errepublike-
tako agintariak eurek txalotu eta indartu egin zuten berrisla-
mizazioa, baina berehala sortu ziren lehen tirabirak. Izan ere, Asian bertan sortutako korron-
te islamiar bat, *deobandia* ize-
narekin ezagutzen dena, oso zorrotza da eta ez dio ezer zor Saudi Arabiako wahabismoari.

Ryad, Pakistan eta Turkiako misiolarien lanak, egoera eko-
nomiko latzak, eta, azkenik, Karimoven erregimenaren errepresio bortitzak islamis-
moaren bilakaera jihadista in-
dartu zuten eta aspalditik ideia horien gotorlekua izan den Ferganako Bailaran –Uzbekis-
tan, Kirgizistan eta Tadjikista-
nek partekatutako lurraldea– Uzbekistango Mugimendu Isla-
miarra (MIU) sortu zen. MIUak Ferganan bizi den egoe-
ra sozial larria baliatu zuen bo-
rroka armatuari ekiteko. Baina islamista denak MIUkoak dire-
la esatea, gehiegikeria argia izateaz gain, Karimoven joko-
an erortzea baino ez da.

2005ean, Andiyan ekialdeko hiriburuan Poliziak Gobernu-
aren aurkako ehunka manifes-
tari hil zituen tiroka. Horrek Uzbekistanek Mendebaldeare-
kin zituen harreman onak no-
labait gaiztotu zituen eta Kari-
mov Moskura eta Pekinera

begira jarri zen. Estatubatua-
rrek erabiltzen zuten Hanaba-
deko base militarra ere itxi egin zuen urte hartan. Baina horrek ez du Uzbekistan Erru-
siaren menpe utzi, Karimov beti saiatu baitzen arrautza guztiak saski bakarrean ez jar-
tzen. Pentsa, AEBe ere aspaldi barkatu zizkioten ««bekatu errepresiboak» eta Termezen beste base militar bat eraiki-
tzeko negozioak abian dira...

Kezka handirik ez

Karimoven heriotzak kezka sortu du Washingtonen zein Moskun. Kinielak hasiak dira jada bere oinordekoa Chavkat Mirzioiev lehen ministroa (errusiar zalea) edota Roustam Azimov lehen ministrordea (mendebaldeko keinuak egin zalea) izango ote den. Eta ez di-
ra hautagai bakarrak. Hala ere, agintari berria edozein izanik ere, argi dago Uzbekistanek ez duela inperio baten edo beste-
aren aldeko apustua egingo eta Moskurekin, Washingtonekin eta Pekinekin “joko txikian” jarraituko duela.

Etorkizunari begira, Karimo-
vek hil aurretik oinordekorik izendatu ez izanak ez du zertan arazo larria izan. Ondoko Turk-
menistan da adibide: Sapar-
murat Niazov presidente aha-
lguztiduna (*turkmenbasi* edo turkomanoen buru) hil zene-
an –berau ere «komunista» ohia– Gurbanguly Berdimu-
hamedow lehen ministroak har-
tu zuen kargua. Eta ez da ezer aldatu, tartean herriaren aur-
kako errepresioa bortitza. Po-
tentzia handiek beharrezko di-
tuztelako Karimov eta Niazov bezalako “Tamerlan txikiak”. Edota beren lanarekin jarraitu-
ko duten oinordeko fidelak.



Oier Gorosabel - @Txikillana

Fisioterapeuta eta osteopata

Pertsona sedentarioen mina

Azken urteetan osasun diziplina desberdinetan minaren prozesuak hobeto ezagutzeko pausu handiak ematen ari gara. Edozein arazo konpontzeko lehenengo eta ezinbestean eman beharreko pausua hura ulertzen saiatzea baita; horrek, bistan da, ez du beti soluzioa ekarriko, baina konponbidea aurkitzeko bidearen lehen mugaria da.

Ikerketen ondorioen artean, minaren jatorria anitza dela ikus dezakegu. Testuinguruak, esate baterako, asko esan nahi du: zure amak ukitzeak segur aski ez dizu minik emango; baina zure etsairik amorratuena keinu bera egiten badizu, agian ez zaizu hain atsegina egingo... Mina prozesu konplexua dela ikusten ari gara beraz, hainbat faktorek eraldatua, eta horregatik klasifikazioak ere aldatzen dira, neurtzeko erabiltzen dugun parametroaren arabera: jatorria, egitura transmisorea, testuingurua, helburua... Gaurko gaiari heltzeko erabiliko duguna azken klasifikazio hori izango da.

Izan ere, kasu gehienetan, minak helburu bat izaten du. Nolabait esateko, ongi ez dabilen egitura minarekin seinaltzen digu gorputzak, eta modu horretan kontuz ibil gaitezke, gure sendatze prozesua aktibatuz. Osagileok egiten dugun esplorazioan ere tratamendu bat edo beste aukeratzeko informazio garrantzitsua aterako dugu minetik. Batzuetan erraza da mina sortzen ari den egitura aurkitzea (min nozizeptiboa); kasu horretan tratamendua zioa sinplea da: ongi ez dabilen egituraren funtzioa orekatzean desagertuko da mina. Beste batzuetan hantura prozesu bat dago tartean (min inflamatorioa), hasierako lesioaren gainean; eta kontuan hartu behar dugu hantura erantzun kimikoen katea dela, bere funtzioa bete-

tzen ari dena, jatorrizko lesioa konpontzeko. Ezin garela sartu besterik gabe inflamazioa kentzera, alegia; horrek jatorrizko lesioari ez bailioke mesederik egingo. Imagina ezazu zure kaleko estolderia hondatu dela; zure etxe parean dauden hondeamakina, mugitutako lur eta langileek traba egiten dizutenez, denak bidaltzen dituzu; kalea garbi geratuko zaizu, ados, baina horrela funtsezko arazoaren konponketa oztopatzen ari zara. Inflamazio prozesuekin adiskidetu beharra dugu beraz, gure arazoak konpontzeko beharrezko "obrak" egiten ari da-eta gorputza. Bitartean, medikuak agindutako botika analgesikoak hartu eta pazientzia izan: horra tratamendurik onena.

Eta ailegatu gara, azkenean, gaur aipatu nahi genuen puntura! Helburuen arabera hirugarren min mota baita

min iskemikoa. Zer da iskemia? Berba tekniko horrek odol zirkulazio falta adierazten digu, eta, beraz, susma dezakezue non dagoen min mota misterioitsu honen jatorria. Izan ere, min iskemikoa oso nahasgarria gerta daiteke: ez dago arazoaren arrazoi argirik, esplorazioan ezin dugu mina inon ere lokalizatu, botikekin ez dago hobekuntza esanguratsurik... Pertsona sedentarioen mina da, postura berdinean denbora asko pasatzearekin lotutakoa: lanpostuan, aisialdian... Ohean ordu asko pasatzearekin agertzen den min tipikoa ere bada. Izan ere, gizakiak mugimendurako eginak gaude: kizkurtze-lasaitze mugimenduekin ailegatzten zaigu odola muskuluetara eta artikulazioetara, elikagai berriak ekarriz eta hondakinak erretiratzuz. Min iskemikoaren soluzioa ere bide horretatik etorriko zaigu: aktibitate fisikoa eta posturaz sarri aldatzea. Errazagoa ezin! •



Aktibitate fisikoa min iskemikoaren soluzioa da.

Marisol Ramirez | ARGAZKI PRESS

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Egin herri, eta ez erridikulua

Sorpresarik gabeko sorpresa izan da: Arnaldo Otegi inhabilitatu digute. Argudio juridikoen faltan, guztiz politikoa eta osoki antieuskalduna den urratsa egin dute. Ez da soilik erabaki aberrantea izan. Jazarpen sistema baten azken oroigarria izan da, herri honen kontrako masazko zapalkuntzaren erakustaldi siniestro bat, aurrez aurre ditugunak nolakoak diren eta noraino heltzeko prest diren erakusten duena. Otegiren kontra eginez, ezkerreko herri abertzalea umiliatu eta emozionalki kolpatu nahi izan dute, bere indarren gaineko konfiantzaz hustu, bere borondate kolektiboa akabatu.

Legalki, Otegi ez da lehendakarigai izango. Ez naiz aditua legeetan eta, aitortzen dut, apur bat aspertzen nau eztabaida legalak egiteak legearekin deus ikustekorik ez duten kontuekin. Inigo Iruinek, maisuki adierazi zuen lege, legalki ez zegoelako auzirik.

Errealitatean, baina, Otegiren neurria eta protagonismoa are handiagotu da. Handiagotuko dugu. Kanpainan latzak bota eta momentu magikoak oparituko dizkigu, ohi lege perla eder askoak. Hain freskagarria den eta zapore herritarrez hain hornitua dagoen EH Bilduren hautagaitzak, auzoz auzo, etxez etxe, botoz boto, jendearen emozioak piztu eta babes handiak irabaziko ditu. Egin herri, hori da bidea.

Ez da berria Elgoibarko lerrerarekin espainiar botereek erakutsitako amorrua. Aspaldikoa da. Aspaldi dabiltza bizitza osoan, biziborroka betean, aberriaren alde, justizia sozialaren alde, ideal justuen defentsan jator eta eskuzabal aritu den militantearen atzetik. Euskal politikaren erdigunetik betirako baztertzea nahiko lukete. Azken hamar urteetatik zortzi kartzelan preso egotera behartu dute, haren izen ona eta ibilbidea zikindu nahian direnak eta ez direnak bota dituzte, orain inhabilitatu, gero batek daki zer. Izan ere, Arnaldo Otegi, asko da, handia da, oso handia benetan: ordezkatzeko duena, haragitzen duen hori, aurrera begira planteatzen duen desafioa ez delako nolanahikoa.

Erasoari kanpainan are lan handiagoa eginez, botoa hemen botoa han xorro-xorro zakukada betez, arnas luzea eta buru argia eskatuko dituzten hilabeteetan are finago jardunez erantzun behar zaio. Egin herri, horixe baietz! Espainiarren jokabideak sortzen digun amorrua bularrean bilduz, hortzak izerdi norberak berean lan, apustuari, aukerari eta umoreari eutsiz, egin herri.

Hori bai, elefante memoria izanik edo burmuina ziliziozkoa eginez, ez da ahaztu behar Arnaldo Otegiri eraso eginez ezkerreko herri abertzalea zigortzeko saio berri honetan batzuek egin eta esan dituztenak. Eta oso bereziki, EAJko buruek. Miserablea izan behar baita Otegi biktimista dela esateko, ziegan emandako zortzi urteetan hau guztia makiavelikoki prestatu duela eta gisakoak iradokitzeke. Erridikulua da. Egiazki, aprobetxategi eta arrakero hutsak dira. Badakite, badakigu, nahi izan balute, espainiar botereek ez luketela halakorik egingo. Gainera, jada ez dute ezta beste alde batera begiratu eta sudur-zuloak tapatzeko plantarik ere egiten. Erridikuluak dira.

Hola bai, Madrilek «Pintto, Pintto, toz, toz, ekarzu pilota txikia» esan eta, EAJkoek, otzan eta koldar, agindua bete. Hola erraza da korta klientelarra gordetzea, bai.

Ez dira konparagarriak baina mingarriak izan dira Pili Zabalaren hitzak ere. Erridikuluak iruditzen zaizkit, eska-

Miserablea izan behar da Otegi biktimista dela esateko, ziegan emandako zortzi urteetan hau guztia makiavelikoki prestatu duela iradokitzeke. Aprobetxategi hutsak dira. Madrilek «Pintto, Pintto, toz, toz, ekarzu pilota txikia» esan eta, otzan, agindua betetzen duten txakur maskotak

sak, benetan eskasak. «Zuzentasun morala» Arnaldo Otegiri eskatzen hastea, are exigentzia kutsu horrekin, kaitxan txiza bezala inteligentziari iseka egitea da. Nahiko buruhaute eta demontre badaude berez, zer eta politikarekin baino erlijioarekin zerikusi handiagoa duten argudioekin hasteko. «Zuzentasun moral» txapelketak kanpora euskal politikatik! Horrelako txapelkeriak katekian edo apaizekin. Hor bai, hor izan lezake zentzu eta interesik. Politikan, baina, etika da gakoa, ez morala.

Zabala andereak ez luke ahaztu behar ez dagoela pertsona bakar bat bera ere, ezta politikaririk ere, zuzentasun moralaren estalkiaren pean osoki tapatuta. Berak bere-berea den eskala eta zentzu partikularra emango dio, libre da horretarako, jakina. Baina, bere eskala denon eskala bihurtzeko nahia politikoki estropezu ziurra da. Morala, gainera, politikan, neurritz kanpo baloratuta dago, batez ere askatasuna gutxiesteko erabiltzen denean. •

HONDARRIBITIK GREZIARA

Arropa tona batzuekin
hasita, betiko zubiak
eraiki dituzte

📁 JENDARTEA / Nagore BELASTEGI MARTIN

Sei emakume Greziako Katsikas kanpalekura joan ziren. Bost egunez euren bizipoz, maitasun, elkartasunarekin busti zituzten bertakoak eta Hondarribira itzuli ziren sentsazio gazi-gozoarekin baina esker onez beterik. Hondarribiko herritarrei emandako aukera bihotzez eskertzen diete, lortutakoa beraiena ere badelako.

Maiatzean bost eguneko bidaia egin zuten Hondarribiko sei emakumek Greziara kazetari batek lagunduta. Katsikas erre-fuxiatuen kanpalekura abiatu ziren herrian jasotako material eta dirua banatzeko asmoz. Bost egun bakarrik izan ziren, gutxiegi euren ustetan, baina betiko esperientzia bat ekarri dute bihotzetan eta aukera hori emateagatik eskerrak ematen dizkiete hondarribiarrei.

Emeki emakumeen elkartean ezagutu zuten elkar Marije Zapirain, Izaskun Eizagirre, Mari Jose Aseginolaza, Edurne Nogeras, Maite Garcia eta Lurdes Retegik. Haien abenturen kontalaria Asier Perez-Karkamo izan zen. Bizilagun soilak bezala joan ziren, baina, bueltan, lagunak direla sentitzen dute. Euren bidaia amaitu da baina proiektuak martxan jarraitzen du.

Arropa bildu zuten maiatzeko. Guztira 30 tona atera ziren Hondarribitik, kamioi batean, diru kantitate batekin batera. Diruaren parte bat joan aurretik gastatu zuten, familiek pixoihalak eskatu zizkietelako. «Gobernuz kanpoko erakunde batzuei emandakoa iritsi behar den lekura iristen ez dela esaten da, eta, guk ikusitakoaren arabera, neurri batean hala da. Guk konpromiso hori hartu genuen eta horrekin jarraitzen dugu. Jendekak dirua ematen badu eskubidea du jakiteko nora joan den

eta zer egin den diru horrekin», azaldu zigun Marije Zapirainek.

Arropa banatzean konturatu ziren kulturalki oso desberdinak garela, baita janzterako garaian ere. Guretzat aproposak eta politak diren jantzi batzuk ez dira bertakoentzat onargarriak edo gustukoak. Horregatik, kanpalekuan bertan joste tailer bat martxan jarri da eta josteko makinak, oihalak, botoiak, artilea, haria... eskatzen hasi dira euren arropak egin eta moldatzeko aukera izan dezaten errefuxiatuek.

Hala, hondarribiarrak Alfa lantegira jo zuten eta haiek gustu onez hartu zituzten. Sei makina eskaini zizkieten. Bestalde, herrian beste hiru lortu zituzten eta material pila bat. Urrian bi boluntario abiatuko dira Katsikasera eta azaroan beste bat gehituko zaie lortutako material berria eramateko.

Donostiako Udalarekin harremanetan jarri ziren eta honek ere laguntzeko asmotan bi auto eman dizkie; bi Seat Panda txiki, bertan ibiltzeko oso aproposak. Hondarribiko emakumeek esperientzia errepikatu nahiko lukete, baina, momentuz, itxaron egin beharko dute, bidaia euren poltsikotik ordaindu zutelako eta gastu handia delako. Gainera, nahiz eta bertan emandako denbora luzeegia ez zen izan, nekagarria izan zen.

«Bost egun izan ginen, baina oso intentsuak izan ziren. Egun batean hain geunden nekatuta afaldu ere ez genuela egin, gogorik ez genuen. Esaten dute hango egun bat hilabete bat bezala-



Marije Zapirain, Izaskun Eizagirre eta Mari Jose Aseginolaza, Hondarribian egin genuen hitzorduan.
Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

koa dela, eta egia da», bota zuen Izaskun Eizagirrek.

Intentsua da bai lanagatik bai ikusitakoak bihotzean eragiten duen zirrargatik. «Ikaragarria izan zen ikustea zer-nolako egoeran bizi diren. Harriaren gaine-

an dute jarrita karpa, ez dute zorurik. Nahiz eta Grezian egon, iparraldean denez (Albaniarekin muga), hotza egiten du. Maiatzean izan ginen eta mendian elurra egiten zuen. Euria egiten duenean dena urez betetzen

zaie. Oso kondizio txarretan daude. Gehienak emakumeak dira eta haur pila bat daude. Gu joan ginenean 50 emakume haurdun zeuden. Haurrek infekzioak, zorriak, azala zartatua... zituzten», aipatu zuen Eizagirrek. Zafirainek jarraitu zuen: «Ez dute batere etorkizunik ikusten. Euren lan duinak, etxeak, eskolak... utzi behar izan dituzte bonbardaketatik ihesi, eta, esaten zigutenez, hori guztia utzi ostean begira nola amaitu duten, animaliak bezala. Gure sentipena da bertan uzten ari direla, hil arte».

HAURRAK, KALTETUENAK

Siriako gerra hasi zenean gizonetzkoek alde egin zuten baina aurten joera hori aldatu egin da, eta, Greziara iristen saiatzen direnen artean, hamarretik sei emakumeak eta haurrak dira, Asier Perez-Karkamo kazetariak argitaratu zuen bezala. NBERen arabera, 200 adingabe hil dira bidean.


Dudarik gabe, haurrak dira gehien sufritzen dutenak, nahiz eta Katsikasen kasuan kanpalekuko alaienak izan. Une oso gogorak bizi izan dituzte. Bost urteko gerraren ostean eskolak eten egin dira. «Badago 15-16 urteko gazteek osatutako talde bat; bakarrik zeuden. 12 urterekin irtengo ziren Siriatic. Beraz, ez da bakarrik gerra, kulturarekin genozidio bat egiten ari dira, eta oso triste da Europaren erantzuna», adierazi zuen Eizagirrek minduta.

Haurrak, helduak bezalaxe, txalupa eta ontzietan iristen dira Europara. Bidaia luzea egin behar izaten dute, euren bizitza arriskatuz eta azkenean espero ez duten leku batean amaitzen dute. Han itxaropena galduta dute, baina, hala ere, irribarrea mantentzen dute ahoan.

Hondarribiko boluntarioek jostailuak eraman zizkieten, tarte batez beste gauza batzuetan pentsa zezaten. «Scooby Doo pultserak egiteko hari pila bat eraman genituen. Ez zekiten lehendabiziko pausoak egiten eta guk egiten genituen beraiek jarraitzeko», kontatu zuten. Lorik egin ezin zutenean ere lehenen-



Goian, euriaren ondorioak. Eskuinean, gerratik ihesi heldutako haur batek egindako marrazkia. Asier PEREZ-KARKAMO



«Bost egun izan ginen, baina oso intentsuak izan ziren. Egun batean hain geunden nekatuta afaldu ere ez genuela egin, gogorik ez genuen. Hango egun bat hilabete bat bezalakoa da»

«Ez du merezi bazkari handi batean zaudela damutzea hango gizagaixoek ezer ez dutelako. Guk ez dugu gure kultura aldatu behar, ez dugu flagelatu behar: solidarioak izan behar dugu»

go korapilo horiek osatzen ibiltzen ziren.

Haurrek badute gaitasun bat zorientsuak daudela irudikatzeko, nahiz eta barruan iluntasun handi bat gorde. Marrazkien bidez islatzen dute beraien samina. Tiroka ari den jendea, tankeak, hildako pertsonak, bonbak, txalupetan iristen diren printzesak, bonbak botatzen dituen hegazkina...

Haurrek ere gainezka egin zuten ekainaren amaieran eta gose greba hasi zuten. Sei eta berderatzi urte bitarteko haurrak gose greban, desesperazio hutssez, laguntza eske. Soluzioa

beste leku batera mugitzea izan daiteke, eta, askorentzat, ez litzateke zaila izango senitartekoekin biltzeko aukera emango baliote. Izan ere, haur horien senitarteko asko Europako beste herrialde batzuetan bizi dira.

«HANGO AZALA HAN UZTEA»

Ez da erraza halako egoera gogorak bertatik bertara ikustea eta etxera besterik gabe itzultzea. «Aholku bat eman ziguten: hango azala han uztea. Ez du merezi bazkari handi batean zaudela damutzea hango gizagaixoek ezer ez dutelako. Ez ahaztu bizitakoa eta ahal duzuenean laguntza bidali. Guk ez dugu gure kultura aldatu behar, ezta flagelatu behar ere. Solidarioak izan, hori da egin behar duguna», aipatu zuen Zafirainek.

Eta orain eskuartean duten proiektua horren adibide da. Gainera, herri osoa inplikatur dago. Jaiak direla eta, elkarte gastronomikoez esan dute lortzen duten diruaren parte bat emango dietela. Aurrerago ere errifak prestatu nahi dituzte, herriko saltoki eta zerbitzuekin elkarlanean, bakoitzak ahal duena eskainiz eta euro baten truke



zozketan sartzeko txartelak salduz. Baina momentuz atzeratu egin dute herriko sukaldari ospetsuek beste egitasmo bat proposatu dietelako: puntako bazkariak eskainiko dituzte 30 euroen truke, eta lortutako diru guztia errefuxiatuentzat izango da.

Hainbeste diru maneiatzea ez da erraza eta horregatik orain laguntza Emekiren barruko proiektu independente bezala

Hondarribiko emakumeak Katsikas kanpalekuan, ikurrina eta herriko bandera eskutan. Argazkia atera zuen kazetariak osatu zuen boluntario taldea.
Asier PEREZ-KARKAMO

antolatzeko prestatzen ari dira. «Ogasunarekin kontuak azaltzea zein zaila den! Ikaragarri nekatzen gaitu, beraz, hori bideratzeko moduak bilatzen ari gara», esan zuten. Euren kontu korronte propioa zabalduko dute eta bi auditore izendatuko dituzte, sei hilero kontuak azter ditzaten eta diruarekin zer egin den publiko egiteko.

Jendearen aldetik, beraz, oso erantzun baikorra sumatu dute,

«Haurrei opari bat egin nahi niela esan eta zer behar zuten galdetu nien. Neguko arropa erantzun zidaten, laster elurra eta hotza egiten hasiko delako»

Errefuxiatuek bizitzeko leku aproposagoak eskatu zituzten duela bost hilabete. Ez dute erakundeen erantzunik jaso eta berriro eskatu behar izan dute laguntza

Hondarribian behintzat. «Hemengoak prest daude jendea etxeetan hartzeko ere. Diputazioarekin eta Lakuarekin hitz egin dugu, alderdi guztiekin egon gara, eta denek oso ondo erantzun dute. Prest daude familiak Euskal Herrira ekartzeko. Baina gero Espainian filtro bat dago, eta ez dakigu Europak mugak jartzen dituen edo zer», kontatu zuen Eizagirrek.

Kanpalekuko egoera hain larria da errefuxiatuak jada esaten hasiak direla zer topatuko zuten jakin izan balute ez zirela Europara etorriko, nahiago dutela bonba bat erortzea ogia erostera joatean horrelako kanpalekuetan egotea baino. Euren herrietan zuten bizitza guztiz arrunta zen gerra iritsi zen arte. Klase ertainekoak dira gehienak, «irakasleak, idazleak, medikuak, gida turistikoak... Jende langilea,

bizimodu ona zuena». Bestalde, yezidiak ere bazeuden kanpalekuan, kurduak, mendian bizi zirenak. Hauek ere pozik zeuden euren bizimodu xumearekin, baina herri osoak suntsitu zituzten eta bizirik iraun zutenek Europara jo zuten laguntza eske. Talde horretako kideekin iskanbilak izan ziren kanpalekuan eta beste leku batera eraman dituztela esan zuten boluntarioek. «Errefuxiatuen artean ez kortasuna hedatzen hasia da, eta, etnia desberdinetakoak direnez, liskarrak sortzea normala da. Ez dute baikortasunerako izpirik».

EGINDAKO LAGUNAK

Yezidiekin harreman polita egin zuten euskaldunek. Bidaiaaren alde txarrak alboratuta, osatu dituzten harremanak dira etxera ekarritako altxorrik onena. Mari Jose Aseginolaza siriar fa-

ZARAUZKO MALEKOITIK INDIAKO ANANTAPUR NEKAZARI KOMUNITATEKO EMAKUMEEI BEGIRA

Mondragon Unibertsitateko Oreka ikasle taldea Indiara begira jarrita dago, zehazki Anantapur nekazari komunitatera begira. Vicente Ferrer gobernuz kanpoko erakundearekin elkarlanean, urritasunen bat duten komunitate horretako emakumeekin proiektu bat jarri nahi dute martxan. Oreka elkarteak Maria Irurozkik azaldu duenez, Gradua Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan ikasketak egiten ari dira eta horien baitan jarri dute martxan proiektua. «Azaroan Indiara goaz, bi hilerako. Bertan proiektuaren bat garatu behar genuela eta jarri ginen harremanetan Vicente Ferrer

elkartearekin. Urteak daramatza Indiako gune pobreenetan lanean elkarleak, ondo ezagutzen ditu bertako beharrak eta indarguneak, eta bidelagun bikaina izan zitekeela pentsatu genuen».

Hartara, gobernuz kanpoko erakunde ezagun horren eskutik, Anantapur komunitatean dibertsitate funtzionala duten emakumeen bueltan hasi dira lanean. «Emakume horiek gaitasun handia daukate ehungintzan lan egiteko eta gure proiektuaren ardatza hori izango da: ehungintza. Baina ez dugu gauza sinboliko bat egin nahi, Euskal Herriko merkatuan aukerak izango dituen proiektu bat garatu nahi dugu,

eta horretan ari gara lanean. Orain gure inguruko merkatua ikertzen eta aztertzen ari gara, zein behar dituen ikusteko. Eta horren arabera diseinatuko dugu Indiako emakume horiek ekoitziko duten ehungintza produktua. Gero, haiek ekoitzitako produktuak euskal merkatuan saltzea da asmoa. Eta irabazitako diru guztia, noski, ekoizleentzat izango da», segitu du Irurozkik.

Vicente Ferrer gobernuz kanpoko erakundeak hamarkadak daramatza Indiako nekazari komunitate desberdinetan dibertsitate funtzionala duten pertsonekin lanean. Baldintza,

eskubide eta aukera berdintasuna sortzea eta bultzatzea du helburu. Eta hori lortzeko norabide desberdinetan jarduten du. Lehenik eta behin, urritasunen bat duten pertsonen integrazioaren alde lan egiten du, maiz baztertuak baitira ez bakarrik jendartearen, baita etxean bertan ere. Bigarrenik, dibertsitate funtzionala duten haurrek hezkuntza duina izan dezaten lan egiten du. Pertsona horiek osasunerako eta oinarritzko zerbitzuak jasotzeko egin behar duten bidea samurtzen ere saiatzen da. Eta, azkenik, bereziki lan egiten du dibertsitate funtzionala duten pertsonen autonomia, askatasun ekonomikoa eta familiarra bultzatzeko.

Vicente Ferrer elkarteak Andhra Pradesh inguruan lan egiten du eta bertako nekazari komunitateetan

milia baten laguna egin da eta oraindik ere harremana mantentzen du Whatsapp bidez. Arropa banatzen ari zirela konturatu zen familia horrek tentuz jokatzeko zuela, ez zuela dena hartzen. «Egun batean liskar bat egon zen. Jendea makilekin agertu zen defendatzeko. Familia horretako aitak 10 urteko semea bertatik eraman zuen borroka ikus ez zezan. Emaztea, 6 eta 3 urteko eta 8 hilabeteko alabak dendan sartu zituen babes-teko», zioen. Berarentzat jokae-ra hori deigarria izan zen eta haiekin harremana hasi zuen. Azken egunean familia osoa atera zen dendatik bera agurtzeko. «Inoiz ez dut hori sentitu, bat-batean malkoak ateratzea», kontatu zuen.

Hondarribian ezkonduetako siri-riar batek kanpamenduko lagunek bidalitako testuak itzultzen dizkio. Hari esker badaki familia osorako pasaporteak lortu dituztela, 500 euroren truke bakoitza, eta Alemaniara joaten saiatuko direla. Bertan dute 15 urteko semea, beste senitarteko batekin. «Haurrei opari bat egin nahi niela esan eta zer behar zuten galdetu nien. Neguko arropa esan zidaten, laster elurra egiten hasiko delako». Hondarribian bizi den mutilak ere bere ama Sirian nola bizi den kontatzen dio: «Jendeak ez du ate edo



Hondarribiko boluntarioek 30 tona arropa banatu zituzten. Burua estaltzeko zapiak arrakasta handia izan zuten emakume musulmanen artean. Asier PEREZ-KARKAMO

leihorik konpontzen, hurrengo erasoan berriro apurtuko dira-eta. Klean egongo balira bezala bizi dira. Baina amak ez du etorri nahi, ez du arriskatu nahi», esan zuen Aseginolazak.

Zertarako etorriko dira, bada, Europako kanpalekueetan jasaten ari diren egoera latza ikusita? Katsikasen bizi direnen ize-
nean kexa bat aurkeztu diote Iheslari-entzako Nazio Batuen Goi Mandatariari, baina Grezia-ko eremu horretako egoera ez dute batere hobetu. Kanpaleku-ko dendak karabanengatik aldatzea eskatzen dute, beste behin-
duela bost hilabete bezalaxe-

haurrak eta euren senitartekoak salbu egoteko. Laguntzarik jasotzen ez badute kanpalekua utzi eta ez itzultzeko mehatxua egin dute. Azken asteetan errefuxiatu talde batzuek jada alde egin dute eta errepide bazterretan pila-
tzen ari dira egoera duina aldarrikatzeko. Greziako Gobernuari eskertzen diote harrera egin izana, baina, orain, Nazio Batuen Goi Mandatariari egoera jasangaitz hori konpontzeko es-
katzen diote.

ESKER ONA

Katsikasen leku askotako bolun-
tarioak daude, «Nazio Batuen

Erakundea dirudi kanpalekuak», elkarrizketatuen hitzetan. «Gure txokoa ezagunetari-
koa zen, iritsi bezain pronto ikurrina zintzilikatu genuelako. Suitzako boluntarioak, hinduak, herbeheretar-
rak... zeuden. Jendearen joan-etorria etengabea da. Gu ginen zaharrenak, gainontzeko gehie-
nak gazteak ziren», azaldu zuen Zapirain.

Zaharrenak bai, baina langile-
ak ere bai. Goizean gazteek bile-
rak egin ohi zituzten, eta, hon-
darribiarrei ondo iruditzen bazitza-
ien ere, nahiago zuten lan-
nean jarri. Segituan hasten zi-

ren arropak banatzen. Gazteek besoak zabalik hartu zituzten, alaitasuna jartzen zutelako kan-
palekuan. Azken egunean sagar-
doa, txorixoa eta gazta banatu
zuten. «Beganoek ere jan zu-
ten!», esaten zuten barrez orain
lagunak diren emakumeek.

Orain Hondarribiko herriari eskerrak ematen saiatzen ari di-
ra. «Inoiz ezingo diogu nahikoa eskertu aukera hau eman iza-
na», ondorioztatu zuten. Konta-
kizun osoa eta hemendik aurre-
rako pausoak jarraitzeko aukera
dago Asier Perez-Karkamo kaze-
tariaren eskutik, #Hondarribia-
tikgreziara traolarekin. •



urritasunen bat dutenen kopurua altua da. Bizi baldintzak oso gogor-
rak dira komunitate horietan eta gosea urritasun kausa eta ondorio bihurtu da dagoeneko. Indian herritarren %5 eta %8 artean dira dibertsitate funtzionala dutenak, eta horien %75 nekazaritza gunee-
tan bizi dira. Pertsona horiek aukera eskasagoak izaten dituzte garatzeko, bai pertsonalki eta bai sozialki. Era berean, diskriminazio bortitza sufritzen dute.

Indiara joan aurretik -eta bertako proiektua finantzatu ahal izateko- festa antolatu dute Oreka elkarte-
koek. Hitzordua bihar, hilak 11, izango da Zarauzko malekoian, goiz guztian barna. Yoga eta meditazio klaseak, surf klaseak, haur-
rentzako tailerrak, kontsumo etikoan oinarritutako merkatu txiki bat, hindu musika... aukera zabala izango da.



Unai
Iturriaga

iRRITZIA:

BAGA:

NAFARROAKO KOMIKI AZOKAK
H28 ALDIZKARI SATIRIKOARI 14
LANEKO LAGIN BATEKIN AZOKAN
PARTE HARTZEKO GONBITEA
LUZATU ZION. LANON AUKERAKETA
ALDIZKARIAREN ESKU UTZI ZUEN.
HAMALAU HORIETARIK BI LAN
ZENTSURATU EGIN ZITUEN.



BIGA:

ZENTSURATUTAKO LANEK OPUS DEIRI ETA TORTURARI
EGITEN ZIETEN ERREFERENTZIA.



LAGA:

"AUTOERREGULATZEKO" ESKATU OTE
ZIOTEN GIORDANO BRUNORI 1600.
URTEAN CAMPO DEI FIORIN SURTAN
ERRE AURRETIK?

AUTO-
ERRE-
GULAGTU
ZAITEZ!



IRUÑAKULTURADA

AGENDA CIVIKOK ZENTROAK ERAKUSKETAK LIBURUTEGIAK GAYARRE ANTZOKIA PROGRAMAK SAN FERMIN LEHENDIK

IRUÑEKO UDALAK EZ DAUKA BATERE ZERIKUSIRIK TIZA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO NAFARROAKO KOMIKIAREN AZOKAREN INGURUAN SORTU DEN POLEMIA

IRUÑEKO UDALAK (AZOKA FINANTZATU ETA LAGUNTZEN DU GOIAN IKUS DAITEKEENEZ), OHAR BAT SARERATU ZUEN POLEMIAKAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUELA ADIERAZIZ ETA "ADIERAZPEN ASKATASUNAREN ETA ARTISTEN AUTO-ERREGULAZIOAREN" ARTEKO OREKAREN PREMIA BERRETSIZ.

"AUTOERREGULATU"? ...LIHMM...

adierazpen-askatasunaren eta artisten autoerregulazio-gaitasunaren arteko oreka

BOGA:

AUTOERREGULAZIOAZ HITZ EGIN OTE ZUTEN MOLAK
ETA SANJURJOK 1936.EAN?



SEGA:

SEGA, GURAIZEAK, AIZTURRAK, CUTTERRA, CTRL+ X...
DEITU GURA DUZUEN MODUAN BAINA NAFARROAKO
KOMIKI AZOKAK EGINDAKOAK IZENA BADU LEHENDIK ERE:
ZENTSURA. UDALAREN OHARREAN AIPATZEN DENA
OKERRAGOA DA, ORDEA. "AUTOERREGULAZIOA" DIOEN
LEKUAN AUTOZENTSURA IRAKURRI BEHAR BAITA.



zugaz/
art



IKUSMIRA

BETIKOAREN AURKA (ETA ALDE)

Alarde parekidea txalotzea ez da derrigorrezkoa, baina askok parekidea izateagatik txalotzen dute. Alarde parekidea ez denaren «tradizionalaren», «betikoaren»- alde (plastiko atzean gordeta) agertzea ere ez da derrigorrezkoa, baina asko parekidea ez izateagatik agertzen dira haren alde. Alarde hori ez da Vegako zenena, Tordesillas-ko ikuskizun debekatu berri hori askoz «betikoagoa» da, Erdi Arokoa. «Betiko» alardean ez dituzte emakumeak torturatu eta hiltzen, bete-



Idoi ZABALETA | ARGAZKI PRESS

garri huts gisa eramaten baizik; alarde parekideko emakumeak ere ez dituzte hiltzen, iraindu eta mehatxatu baino ez. Baina emakumeak maite dituzte. Lehena, Guadalupeko Ama Birjina -hari egindako eskaintza da alardea-, herriko emakume guztiak baino errespetagarriagoa. Baina gainerako emakumeak ere maite dituzte, alardetik kanpo, ordea. Beti ez baina «betidanik» egiten ziren hainbat gauza aldatu egin dira, zorionez, eta beste asko, hala nola emakumeak baztertzen dituzten jaiak, aldatuko dira, «tradizioaren» aurka. Eta haren alde. Xabier Izaga Gonzalez

ABERNE ILUSIO IZENA DA

Pilotari profesionala izan nahi duen neska baten filma grabatu du Irati Santiagok

 **JENDARTEA** / Jon Ormazabal

Abernek amets bat du: pilotari profesionala izatea. Okindegi batean lan egiten duen bere amak, ordea, ez dio etorkizunik ikusten ametsari, «neskek ez dute pilotan jokatzeko», eta bere alboan nahi luke lanean. Horixe da, kontatu ahal den neurrian, Irati Santiagok iragan asteburuan Villabonan eta Asteasun grabatutako film laburraren argumentua.

Bere lehendabiziko film laburra izango denaren protagonistak bezala, Villabonako Irati Santiagok ere txiki-txikitatik amets bat izan du; kasu honetan, zinema zuzendari edo ekoizlea izatea. Abernere bezala, Iratiren bidea ere ez da erraza izan. Ikus-entzunezko unibertsitate ikasketak Salamancan amaitu ostean, Ameriketako Estatu Batuetara joatea erabaki zuen, Euskal Herrian eta espainiar Estatuan bere gustuko lan horretan jarduteko aukerak oso murriztak direlako. Azkenaldian Chicagon izan da, bertako Columbia College ikastetxean zine ekoizpen master bat egiten.

Hantxe sortu zitzaion irail hasieran Euskal Herrira bueltan ekarri duen “Aberne” filmaren grabaketaren ideia. Gradua lortzeko egin beharrekoen artean, tesia egin behar izan du zuzendari gazteak eta hortxe bururatu zitzaion pilotari profesionala izan nahi zuen neskaren inguruan film labur bat sortzearen ideia. «Bertako irakasleei segituan gustatu zitzairen nire ideia; ‘ze polita, ze exotikoa, euskal kultura, emakume bat... ideia landu beharra daukazu’, esan zidaten eta hala hasi ginen», azaldu digu Santiagok.

Aberne izena bera ere, era batean edo bestean, Ameriketako Estatu Batuetan egindako lagunek bultzatutakoa izan da. «Broma modura Pilar deitzen ninduten, telenobelaren batean edo entzungo zuten! Bada, Interneten begira jarri eta Pilarren itzulpena Aberne zela irakurri

nuen. Gustatu eta handik aurrera gure protagonistak Aberne izan du izen».

Irati Santiagok ez zuen oso urrunera joan beharrik izan proiektu honetarako bidaide bat lortzeko. Emma Johnson zuzendariarekin zenbait lan egindakoa da eta berehala jaso zuen gidoia idazteko baietza. Gero itzultzaile batzuk arduratu dira gidoia euskaratzeaz, filma euskaraz grabatu da-eta. «Ideia lantzen hasi eta gauzak borobil atera zitzaizkigun. Ameriketako Estatu Batuetako Princess Grace Kelly sarietarako aukeratuak izan ginen, Columbia unibertsitateak beste sari bat eman zigun ideiatatik... Pixkanaka-pixkanaka ideiak xarma berezia zuela konturatzen joan nintzen, mamia zuela».

GRABATZERA, ETXERA

Harrera horrek bultzatu zuen Irati Santiago filma grabatzera Euskal Herrira etortzera. Berez, filma Chicagon bertan grabatzea askoz errazagoa eta, batez ere, merkeagoa litzateke. Baina zuzendariak argi izan zuen grabaketak Euskal Herrian egin behar zituela. «Dirua lortzeko kanpaina bat jarri nuen martxan. Film bat egiteko diru gutxi da –gehiena materiala alokatzeke– eta jendea boluntario gisa aritu da. Oso ondo irten da guztia eta filma egin ahal izan dut», azaldu du, pozez.

Gauzak horrela, irailaren 1etik 5era Villabona eta Asteasun aritu dira Irati Santiago eta bere lantaldea film laburrerako irudiak grabatzen. Dagoeneko Ameriketako Estatu Batuetara

Irailaren hasieran Villabonan eta Asteasun aritu dira «Aberne» film laburraren grabaketa lanetan. Argazkiotan, grabaketan une desberdinak. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS





itzuliak dira, bertan egingo dute-eta postprodukzio lan guztia. «Hurrengo urteko ekainean filma Villabonan estreinatu nahiko nuke. Herriko jendeak ikus dezala, asko estra moduan aritu dira-eta. Tabakaleran ematea edo beste zerbait egitea lortuko bagenu... baina, tira, hori ikusi dugu aurrerago», azaldu du.

Euskal Herrian egon diren egunetan, sekulako harrera egin diete. Horren erakusle, Villabonako Udalak «erreginen pare» tratatu dituela eskertu nahi izan du orriotatik Santiagok.

PILOTA, GERTUKO KIROLA

Bere lehen lan honetarako gai bezala pilota aukeratu izana ez da kasualitate hutsa izan, kirol honekiko harreman handia baitu Irati Santiagok. «Nire osaba erremontista famatua izan zen –Imanol Mugika, 1988an eta 1991n buruz buruko txapeldun izandakoa– eta beti pilota munduan sartuta ibili naiz; mutilak ere pilotan jokatzen du egun eta pilota munduan nahikoa aditua naiz. Kontua da pena ematen didala neskek ezin jokatzea. Eta badakit neska pila bat daudela pilotan dabiltzanak, baina ezin

dituzte partidak jokatu eta hori aldatu behar den zerbait da», nabarmendu du.

Zorionez, pixkanaka bada ere, ari dira neskek eskuz jokatze txapelketa desberdinak antolatzen eta Irati Santiagok ere izan du horren berri. «Entzun nuen bai eta ideia bikaina iruditzen zait, halakoak gehiago bultzatu beharko lirake», azaldu du.

Hasiera batean, Aberneren papera egingo zuen aktorea topatzeak ez zirudien batere erraza. «Oso garrantzitsua iruditzen zait aktoreak pilota jotzen jakitea, takoak jartzen... Berehala nabaritzen da nor aritu den pilotan eta nor ez, eta guretzat oso garrantzitsua zen neskak pilota jokatzen jakitea. Lortu dugu!».

Noizean behin gertatzen da izarrek lerrokatzen direla, eta hala gertatu zitzaion Irati Santiagori, etxetik oso urrun joan beharrik izan gabe gainera. «Aktorea oso-oso ona da, Janire San Sebastian, Zizurkilgoa. Bera pilotan aritu izan da betidanik, antzerkian ere bai, eta guretzat hautagai perfektua zen, ezin hobea. Bi gauzak egiten dituztenak oso gutxi izango dira Euskal Herrian, bera bakarra ez bada, eta

izugarrizko zortea izan dugu. Oraindik ezin dut sinistu!».

Zinema zaleentzat ezagunak diren Felix Arkarazo, Agurtzane Intxaurre eta Iñaki Beraetxe bezalako aktoreek ere parte hartu dute grabaketan, baina, zoritarrez, Irati Santiagok ez du lortu pilotari profesionalen batek filmean parte hartzea. «Aspe eta Asegarcerekin harremanetan izan nintzen, baina ez didate baimenik eman», azaldu digu penaz.

Baina emakumeek pilotan ari zeko duten eskubideaz harago, film honen grabaketak ere badu beste helbururik Irati Santiagorentzat. «Nik Ameriketako Estatu Batuetan geratu nahi dut, ez

Irailaren 1etik 5era grabatu zituzten Villabona eta Asteasuko pilotalekuetan «Aberne» lanaren eszenak. Postprodukzio lan guztia, berriz, Los Angelesen egingo dute hurrengo hilabeteetan

Aberneren papera egiteko aurretik pilotan aritutako aktore gazte bat topatzeak ezinezkoa zirudien. Bada, Janire San Sebastianekin «izugarrizko zortea» izan du Irati Santiagok

dakit zenbat denbora, hamar bat urte? Nire ibilbidea egin, bertan lan egin, baina, era berean, bertan euskal kultura zabaldu nahi nuke. Uste dut oso aberatsa dela, potentzial handia duela, eta han erakutsi nahiko nuke». Bidea, gainera, zerbait zabaldu dela iritzi dio: «Jendeak ikusmina du euskal kulturarekiko. Hortxe daukagu 'Loreak' filmaren adibidea; Ameriketako Estatu Batuetan ezaguna egin da, baita nire irakasleen artean ere. Izugarri gustatu zaie. Horregatik, aukera oso ona ikusten dut gure kultura zabaltzeko».

Tamalez, bere ibilbidean aurrera egiteko, Ameriketako Estatu Batuetan geratu beharra izango du, Euskal Herrian ez baitu aukerarik ikusten. Etxekoek ere aspalditik zuten nahikoa argi egunen batean etxetik irten eta kanpora joango zela, Abernek bezala, oso txikia zela erabaki baitzuen gustatzen zaiona egitetik bizi nahi zuela.

Chicagon publizitate munduak indar handia duen arren, zinemaren industria Los Angelesen biltzen da eta Kaliforniako hiri eguzkitsua izango du bizitoki Irati Santiagok hurrengo hilabeteetan. Hiri erraldoia da Los Angeles, denetarik duena, baina bizitzeko oso garestia. Hala ere, «amerikar ametsak» dioen bezala, gogor lan eginez gero, aukera handiak eskaintzen dituen hiria da, eta amets horren atzetik joana da. Emma Johnson ere aldamenen izango du, elkarrekin lanean jarraitzeko aukera ere hor izango baita.

Hollywoodetik gertu gorpuztuko da, hortaz, Aberne izeneko erronka, eta, dena orain arte bezain ondo badoakio, Irati Santiagok ez du baztertzen 15 minutuko film laburra film luze bihurtzeko ametsa.

Dena dela, *american lifestyle* delakoa ez du oso gogoko, eta, epe luzera, Euskal Herrira itzuli nahiko luke bizitzera. Bitartean hemen gauzak aldatzea gustatuko litzaioke, zinema eta sorkuntzan inbertsioak egingo lituzketen enpresak egotea. Zaila? Emakume pilotariak egoteak ere ezinezkoa zirudien orain arte. Aberne izango al da lehena?



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Gertatzen ari da

Konturatu garenerako, espainiar erreinuko gobernu ezak eragin ditu bere lehen biktimak. Aramis Fuster dugu alde batetik, etxerik gabe kale-gorrian geratu den Telecincoko pitonisa mitikoa. Pantailetatik baztertu zutenetik maldan behera bueltaka hasi eta orain, bururik altxa ezinda omen dabil etorkizun-iragarlea. Gorka Mañeiro da bestea, Riveraren alderdiak sortutako uriolek aurretik eraman duten etorkizun oparoko euskal politikaria. Azken zurrumurruen arabera, Alfonso Alonsoren saltxitxautoan gildak prestatzen ari dena. Jakinda, bagenekienez, gure Alonso maitea beti izan dela arrautzak jatearen aldeko-agoa.

Ebroz beherakoak, izan ere, ez dauka izenik. Bestelako patxadan gaude pasiorik gabeko gure nazio foral hone-tan, egia esan. Aura jainkotiarreko monagilloaren gidaritzapean, haritz ezkurrez egindako ogi bat urik edan gabe digeritzea baino luzeagoa den amaiera zehatzik gabeko asperduran. Azken laurtekoa Urkullurekin horixe izan baita: egonkortasun erabatekoa. Eta hori, ezerezetik ogiak sortzeko gai den okinaren isileko lanari zor diogu. Eskuak irinez baino zikintzen ez dituen eta bere emozioak txistua joaz kontrolatzeko gai den lehendakari inplikatuari.

Gero dago sozialistei munduko hiritar izateko ohorea lapurtzeko lehian, arerio politikoz okertu den (edo ez) Pablo Iglesiasen Euskadiko kabinetea. Er-kidegoko panorama politikoa iraultze-ra datorren haize berria, lasterketa hasi aurretik pintxatu duen maillot moredun txirrindulariaren itxura har-turik. Han dena aldatzeko jaio eta he-men zerbait aldatzea konplikatuko di-guna. Eta ez diot txarrera ere, baina Podemosek zerbait lortu badu mo-mentuz, Kataluniako eta Euskal Herri-ko prozesu independentisten aurrean Madriletik zuzendutako galga bihur-tzea izan da. Gauzak argi adieraztea-rren: Espainia desegin ez dadin Esta-tuari ezin hobeto datorkion dikea baino ez da, orain eta hemen.

Gure herri hau, azken batean, uste duguna baino sinpleagoa da. Geuk konplikatzen ditugu geure buruak sar-ritan. Futurologia ariketa erraz bat egingo bagenu, ematen du hurrengo hauteskundeetan ere, PNV ez dela gehiegi jaitziko. Ikusteko dagoena da zenbat jaten duen alderdi unionisteta-tik. Anasagastik berak aitortu zuen au-rreko astean egindako elkarriketa ba-tean: orain hemen baskoagoak direla lehenago espainol bakarrik sentitzen zirenak –gure telebista publikoak zere-gin horretan izan duen eta duen ga-rrantzia gehituko nioke baieztapenari akaso-. Ahaztu zitzaiona da, baskoago-ak hemen denok garela orain, ez haiek bakarrik. Eta Madriletik guri buruz di-seinatutako irudiaren neurrira eginda-ko moxorroa jantzita eramatera ohitu garela, ia ohartzeko astirik gabe.

Baskoagoak gara denok orain, bai. Betiko astakilo zintzo, langile eta hitzeko izaten jarraitzen dugu finean. 78ko txiringitoari eusteko Madrilek ezinbesteko duen Ajuria Eneko lora-

zain leiala. Jeltzaleek ez dutelako inoiz hutsik egin horretan. Hor egon dira beti, eskuak irinetan zikintzeko prest, gauden tokira ekarri gaituen egonkortasunaren alde akordioetara iristeagatik. Asuntoa azken 40 urteo-tan nork bere txiringitoari eustea izan baita. Trukean, beti, negozioren bat ateratzea. Zer uste zenuten ba? Horre-gatik dauzkagu dauzkagun errepideak, museoak, trenak eta azpiegiturak. Ho-rren kontura batzuk poltsak ondo bete dituztela? Ongizatearen izenean, onar-tzeko prest gauden bekatutxo txikiak baino ez dira horiek. Inora ez doazen gauzak, Jaunaren erreinuan.

Hauteskundeen ondorenean paradisu-rik edukiko ez dugula jakinda ere, hondoratzen ari den itsasontzian jarraitzearen edo, beste batzuen an-tzera, geure bidea egiten hastearen artean aukeratzeko ordua ailegatu zaigu. Ikasturte hasierarekin batera, ilusioa berreskuratzeke arrazoren bat izan dezagun sikiera. Gero berandu izango baita damutzeko. •



Urkullu, bere emozioak txistua joaz kontrolatzeko gai den lehendakari inplikatu.

AMONDARAIN

{ koaderno } **Garazi Goia**

Hegazkinean, amaierez

Aurrekoan lagun batek esan zidan, dirudie-nez, hegazkinetan egoten diren aldizkarietan zutabeak idazten dituen jendeari benetan ongi ordaintzen diotela. Izan ere, normalean hilabetekariak izaten direnez, aldizkari bera milaka eta milaka pertsona ezberdinen eskuetatik pasatzeko probabilitatearen legea ere aldeko dauka. Uneren batean eta beste aukerarik ezean, denbora pasatzeko bada ere, gehiengoak aldizkaria irakurtzen amaitzen du-eta.

British Airways hegazkin-konpainiaren aldizkarian, John Simpson kazetari ingelesaren zutabea kontzienteki irakurtzen dut beti. Simpson BBC etxean lanean aritu da azken berrogeita hamar urteetan, eta mundu mailan ezaguna egin da, batez ere gatazka leku gehienetan berriemaile lanetan ibili delako.

Hegazkineko aldizkariko zutabeen, oraingoan bere azken liburuaz ari zen, duela gutxi argitaratu dena: “We chose to speak of war and strife” izenburuduna, “Gerra eta borrokaz hitz egitea aukeratu genuen” bezala itzul daitekeena. Bere bizibideari buruzko kontaketa bat da; ez berea bakarrik, baina bera bezala gerra korrespontsal lanetan ibili direnena. 1968. urtean, lehenengo aldiz bulegora sartu zeneko oroitza-pena aipatzen zuen, zigarro usaineko gela hartan azaldu zen eguna; mundua aski ezberdina zen orduan. Baina, ordutik, hainbat lekutako testigantza utzi digu, Krimea, Vietnam, Sarajevo eta Bagdad adibide gutxi batzuk baino ez dira.

Zutabeen aipatzen zituen bi erreferentziak ezegonkortasun ezohiko bat eragin zidaten.

Batetik bera bezala atzeritik albisteak emanez urteak eman zituzten beste kazetari ezagunak aipatzen zituen. Lau kazetari hain zuzen ere: Clare Holingworth, Hitle-rreren tropak Polonian sartu zirenean albistea zabaldu zuena izan zen; Forbes, Anglo-Zulu Gerrako heroia; Anthony Loyd, ustez laguna zen beste kazetari batek traizionatua izan zena Sirian, eta Martha Gellhorn, Hemingwayn emaztea. Kasualitatea. Itzuli dudan liburuaren aurkezpena egitetik nentorren, eta bezperan Martha Gellhorn eta Hemingwayri buruz aritu ginen gu ere, Es-

painiako Gerra Zibilean elkarrekin erreportari lanetan ibili zireneko pasarte batzuk aipatu genituen. Emakume aparta eta historian zehar arrastoa utzi duena.

Eta, bigarren aipua, liburua idazteko hartu behar zuen diziplinaz ari zen. Egutero goizeko bostetan ordenagailuaren aurrean jartzeaz. Bezperan goizeko ordu bietan oheratu bazen ere, bostetan jaiki omen zen egutero, eta bere kazetari lanera joan aurretik ordu batzuk idazten ematen zituen, egutero. Liburua amaitu zuenean, inprimatu eta mezulari bati eman zion, editoreari eramateko. Une hartan, goizeko bostetako errutinaren mira izango zuela pentsatu zuen. Liburuaren falta sentituko zuen. Tristurak gain hartuta zegoen bitartean mezularia kalean beheara nola desagertu zen ikusi zuen. BBCko bulegoen atzean dagoen kale hura perfekzioan irudikatu nuen.

Askatu ezin nuen barreneko korapilo batekin borrokan nenbilen ni ere. Nire itzulpen proiektua amaitu zelako. Nik ere «Mrs Hemingway»-ren hutsunea sentituko nuen. «Utziozu orain liburuari bere bidea egiten», esan zidan G-k

Kasualitatea berriro ere. Une hartan bertan, askatu ezin nuen barreneko korapilo batekin borrokan nenbilen ni ere. Nire itzulpen proiektua amaitu zelako. Nik ere «Mrs Hemingway»-ren hutsunea sentituko nuen. «Utziozu orain liburuari bere bidea egiten», esan zidan G-k, «orain bere txanda da». Arrazoia zeukan. Baina, besterik ezean amaiera kutsuko une guztiak gorroto ditudala gogorarazteko balio izan zidan. Nire positibotasun guztiaren gainetik, deseroso sentiarazten zidan sentsazio hura ezin gainetik kenduta nengoen. Proiektu berezia izan zen niretzat. Oroimenean aztarna uzten dizuten horietakoa. Liburuan idazterik izan ez nuen zerbait nonbait idatzi behar nuela pentsatu nuen. Amaiera ona emateko. Hori zen falta zitzaidana. Zuretzat, Lea. •

«Independentzia Euskal Herria gara daitekeen markoa dela uste dut»

Historia, batez ere Euskal Herriarena, izan du zeregin gatzetik. Argentinako euskal etxeetan hitzaldiak ematen jarraitzen du. Dauden 101etatik 90ean hitz egin du jende aurrean, betiere Euskal Herriaz. Euskal Herrian, berriz, Argentinako euskal komunitateaz jarduten du. GAUR8 Mikel Ezkerro euskal argentinarraren oroimen pribilegiatuaren eta hitz-jario jantziaren lekuko izan da. Etengabe data zehatzak, izenak (eta bi deiturak), lekuak eta nonahiko datu historikoek hornitzen dute haren solas oparo eta ondo egituratua.

Euskal kulturaren eta historia-ren, oro har, Euskal Herriaren, dibulgatzailea zara.

Nik beti esaten dut kultura gure arma dela, eta euskal etxeak, tresna bakarra ez badira ere, jakina, bitarteko aproposena direla Argentinan euskal egitatea hedatzeko, batez ere hango gizarteari, eta ez euskal jatorriko komunitatearen baitan bakarrik, nahiz eta Argentinako euskal komunitatea diasporako ugariena den. Edonola ere, ez dugu zenbaki horiek direla-eta geure burua engainatu behar. Batzuek ez dakite arbaso euskaldunen ondorengoak direla, beste batzuek badakite baina horrek ez die ezer askorik esaten, edo besterik gabe Euskal Herriaren gaineko iritzi ona dute; beste batzuk, berriz, euskal etxeren batego kide dira, bertako jarduerak erakarrira, eta azkenik, “giltzurri-na” dago, nolabait esateko, euskal gaiarekin konprometituta dagoen taldea. Gauza bat nabarmendu nahi nuke elkarrizketa honetan: azken urteetan euskararen zabalkuntzari dagokionez sortu den interesa eta egindako lana. Gogorarazi beharra dago euskara XIX. mendean eramán zutela Argentinara euskal emigranteek, orduan hara joandako gehien-gehienak euskaldunak ziren-eta.

Zure zereginak, ordea, kultur eta jakintza-alderdiez gainera, politikoa ere badu, ezta?

Ni Argentinan jaio nintzen baina Euskal Herrian hazi nintzen, frankismo betean, 40ko hamarkadan. Bilboko jesuitetan ikasi nuen, Indautxun. Ez naiz luzatuko urte haiek euskal gaiari dagokionez zer ziren kontatzen. Nire ama Bilbon jaioa zen, nire aita Argentinan, baina hura ere Bizkaian hazia, umetatik. Amak euskal sentimendua erein nahi zuen nigan, eta nire aita argentinarra. Urte gogorak ziren. Gogoan dut nola amak hainbat konturen be-

rri eman ondoren, esaten zidan hori etxean baino ezin zela esan. BPSko (Brigada Político Social) bi gizon zapata-garbitzaile bat «agur» esateagatik kalean jipoitzen ikusitakoa naiz ni. Giro horretan hazi nintzen. Eta Argentinara itzuli nintzenean, gerra ondorengo euskal erbestea ezagutu nuen. Ameriketara joandako erbesteratu guztiei nire errespetu osoa adierazita, nire herriak hartu zuen, arlo kulturalari dagokionez, erbesteratuen gaina eta lorea. Denak ezagutu nituen eta ordu luzeak eman nituen haiekin. Orain egiten dudana haiekin

ikasitakoa da neurri handian. Irakurri ere irakurri dut, asko, baina liburuetatik baino gauza gehiago haiengandik ikasita dakizkit.

Zuk ere parte hartu zenuen erbesteratu haien lanean.

Buenos Airesen Ekin argitaletxean parte hartzeko zoria izan nuen, besteak beste Martin Ugalde kultur itsasargia zenarekin. Kontuan izan orduan Europan gerra zegoela eta hura bukatu arte Ipar Euskal Herrian ere ez zegoela ezer egiterik. Ekin horren proiektio kulturala, eta baita politikoa ere, izan zen hainbat argitalpenen bidez. Agirre lehendakaria entzuteko zoria ere izan nuen Argentinan izan zen azkeneko aldian, 1955eko abenduan. Ez nintzen gehiegi hurbildu, sekulako jendetza baitzegoen; ez nazionalistak bakarrik, baizik eta sozialistak, errepublikanoak eta komunistak ere. Jende harentzat Agirrek bere alderdiko militantzia gaintzen zuen. Ondoren beste lehendakariak ere ezagutu ditut han: Leizaola, Garaikoe-txea, Ardanza eta Ibarretxe. Argentina bisitatu ez duten bakar-rak Patxi Lopez eta Iñigo Urkullu dira. Urte haietan Euskal Herriaz idatzita zegoena irakurri nuen, gehiena EAJren eraginpekoa, baina lagun handi bat ezagutzeko zoria izan nuen, Euskal Herrian zoritxarrez oso ezezaguna dena: Pello Mari Irujo, Manuel Irujoren anaia gaztea, Eusko Abertzale Ekintzaren fundatzailea eta 1960tik Franko hil artean “Eusko Lurra” aldizkariaren zuzendaria izan zena. Berarekin lan egin nuen nik aldizkarian, hainbat izengoiti erabilita. “Eusko Lurra” antifrankismoaren joera guztiei zabalik zegoen, eta kolaboratzaile sozialistak, errepublikanoak edo anarkistak zituen; gainera, belaunaldi berriei zabal-dutako argitalpena zen.

Besteak beste, ETaren sortzaileez ari zara?

Gure aldizkariaren orrialdeetatik 1959an sortu eta Burgosko Prozesuaren ondoren nabarmendu zen erakunde horren sortzaileetatik gehienak igaro ziren: Txillardegia, Madariaga, Irigarai, Agirre... Horiek guztiek idatzi zuten

gainerako euskal hedabideetan isiltasun kontsigna zegoenean. Siglak ere ez ziren agertzen, ezta Burgosko Prozesuaren berri ere, noiz eta Argentinako egunkaririk liberal eta eskuindarrenek ere horretaz informatzen zutenean. Joseba Elosegiren “Quiero morir por algo” liburua ere ezkutatu zuten. Jagi-Jagiko lagunak ere izan ditut, eta haiengandik eragin handia jaso dut.

Euskal independentziaren aldeko eragina, esan nahi duzu?

Nik ez dut hemen botoa ematen, eta eman nezake, nire amagatik, baina ez dut espainiar herritartasuna, neure borondatez, eta dutenenganako nire errespetu osoa erakutsita. Nire nahia, eta bada-kit oso baikorra izatea dela, euskal nazionalitatea lortzea da, hori da nire ilusioa. Independentista naiz, independentismoaren barruko ideologiak eta joerak errespetatuta, arlo ekonomikoari eta sozialari dagokionez. EAKo militantea naiz, independentziaz hitz egiten duelako, eta badakit zein diren alderdi horren gaitasun kualitatibo eta kuantitatiboak. Independentzia Euskal Herria gara daitekeen markoa da, munduan arlo askotan dagoen interdependentziaren jakitun izanda ere. Baina konpondu gabeko arazoak ditugu: Nafarroaren eta Ipar Euskal Herriaren gaiak, hain garrantzitsua den euskararena... Izan ere, euskarak dirauen artean Euskal Herria izango da. Orain dela urte batzuk EAEn bozkatzaren zuten argentinarren errolda 5.500etik gorakoa zen. Eta bada-go, halaber, Nafarroa Garaitik joandakoen ondorengo errolda.

Eta euren arteko harremanak nolakoak dira?

Argentinan integrazio handia dago bi komunitateetako ondo-ongoen artean. Esango nuke integrazioa nagusi dela. Eta, edonola ere, ez dago batere aurkakotasunik. Euskal etxeetan bazkidetza partekatzen dute, baita zuzendaritza karguak ere. Oso aspaldi izan dira nafarren ondorengoak zuzendaritza karguetan, gainerako herrialdeetakoak bezala, Ipar Euskal Herrikoak barne; dakizunez, horiek asko baitira,

MIKEL
EZKERRO

EUSKAL HERRIAREN
DIBULGATZAILEA

Euskal argentinarra sentimenduz eta
konbentzimenduz. Euskal Herriaren azken
mendeetako historiaren ezagutzaile
aparta, Argentinako euskal etxeetako
hitzaldietan konbentzitzen jarraitzen du.

Xabier Izaga Gonzalez


hangoa izan baitzen lehenengo emigrazioa. Euskal etxeetan sanferminak ospatzen dira nafar etxeetan bezala, bai baitaude baten batzuk. Euskal etxeak, berriz, 101 dira, ezaugarri desberdinekoak, batzuk sortze prozesuan... Baina badira 60 inguru ondo finkatuta daudenak, haietako asko erbesteko jende haren itzalean.

«Nazionalismoa bidaiatuz sendatzen da». Zer diotso euskal argentinarrak bidaiari bati esaldi horrek?

[Barrez] Hori ondo geratzen den esaldia da. Nazionalismoa zer da, ordea? Ematen du katalanak eta euskaldunak baino ez direla nazionalistak. Inork ez du bere burua espainiar nazionalistatzat aitortzen. Baina Argentinan espainiar nazionalismoaren adierazle handiak ezagutu ditugu eta badakigu zertaz mintzo garen. Miguel Primo de Riveraren diktaduran, 1928 eta 1930 bitartean, Espainiako enbaxadorea nor eta Ramiro de Maeztu izan zen, “La defensa de la Hispanidad” obraren egilea, hain zuzen. Eta termino hori ez zuen berak sortu, askok uste duten bezala, baizik eta Zacarias de Vizcarra apaizak, liburu bitxi baten egileak: “Vasconia españolaísima”. Hara, bata Araban jaioa eta bestea bizkaitarra... biak ere espainiar nazionalismoaren txapeldunak. Ondoren, Francisco Francorekin, Portugaleteko enbaxadore bat izan genuen, Jose Maria de Areilza, eta gero On Manuel Aznar nafarra, harako haren aitona eta *Gudalgai* izengoitia erabilita “Euzkadi”-n Jagi-Jagi atzean uzten zuten artikulua argitaratu zituena. Tira, esaldi hori *boutade* bat da.

Izan ere, gutxienez bitxia da zenbaiten ahotan.

Orain jende guztia “europeista” da. Ahaztu egin zaie antza esaten zutela Europak ez ziela bate-re axola, frankismo aurretiko europeistak madarikatutzat jotzen zituztela, eta Europa Espainiaren aurkako ikaragarrikeriatzat. Hemen europarrik izan bada, katalanak izan dira horiek, edo euskal herritarrak. 1933an, Donostian, bigarren Aberri Egu-



Argazkiak: Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

IBILBIDEA

Rawsonen (Argentina) jaio zen, duela 78 urte. Umetan Euskal Herrian bizi izan zen, amak euskal sentimenduan hazia. Euskal Herriko historia modernoan eta garaikidean espezializatu zen eta zenbait aldizkaritan kolaboratu zuen, 36ko gerraren ondorengo euskal erbesteratuekin. Hainbat kultur instituziotako arduradun edota kide. Ezin konta ahala hitzaldi eman ditu Ameriketako euskal komunitatearen historiaz.



naren goiburua “Euskadi, Europa” izan zen, eta euskaldunak beti egon dira europar izanari eta Latinoamerikako lanari lotuta. Ez dugu ahaztu behar Elias Gallastegiren presentzia Mexikon, edo Belaustegoitiaren artikulua eta Sandinorekiko elkarriketak... Euskaldunek halako proiektzioa izan dute munduan, espainolek, are gutxiago eskuinak, izan ez dutena. Gogoratu Calvo Soteloren esaldi hura, *«antes una España roja que rota»*. Eurentzat batasun elementua ez da legea edo balioak, Espainia bera baizik. Eta jai dute, Amerikan bezala. Aurten Argentinak 200 urteko independentzia ospatu du. 24 urtean Espainiak Mexikotik beherako guztia galdu zuen, armaz. Zer esan dezake nazionalismoaz? Ni irakurrita nago Espainiako Liburutegi Nazionean zer esaten zuten egunkariak kubatarrez: «filibusteroak, separatistak». Jose Martik, AEBetan erbestean zela, harreman idatzia zuen euskal independentista batekin, Florencio Basaldua, noiz eta Espainian hitzez hitz Kubako amen

sabelean hazi iraultzailea erazutena aldarrikatzen zutenean.

Sarritan esan izan duzu sentimendu hutsa ez dela nahikoa.

Hara zein den nire ideia zentrala. Argentina da euskal sentimendua sustraituen dagoen herrialdea, Patagoniatik Mexikoraino, ez ditut-eta AEBak ezagutzen. Baina beste hanka den jakintzari dagokionez, kritiko samarra naiz. Nik, guk, lan egiten dugu, gure ahalbideen arabera, gero eta jende gehiagok euskal egitatea, Euskal Herria, ezagutu dezan. Azken garaian teknologia berriek gauza batzuk erraztu dituzte, interesa areagotu egin da, baina batez ere sentimenduaren arloan, familiarren nondik norakoa jakiteko, beren herriaren argazkia ikusteko, eta abar. Baina, jakintzaren dagokionez, ezjakintasun handia dago; beraz, bi arloen gainean lan egin beharra dago.

Esate baterako?


Esate baterako, geografiaren ezauguera bultzatu beharra dago, lurralde batasunaren aldarrikatzaile gisa. Euskal etxe baten

zuzendaritzako kide batek jakin behar du, galdezka doakionari erantzuteko, non dagoen Abaltzisketa, eta herri hori Gipuzkoan kokatzen. Garrantzitsua da estatu propioa lortu duten beste kolektibitate batzuegandik ikastea. Argentinan badago kolektibitate bat oso ondo lan egin duena: armeniarra. Asko dira Argentinan, eta egun armeniarren biloba argentinarrak bati «turkiorra» esaten badiote, boxeo-borrokaldea antolatuta dago. Beren eskolak dituzte, Argentinako programen araberrakoa, jakina, baina badituzte ikasgai beren hizkuntza, historia eta geografia ere. Genozidioaren urteurrenean, Argentinako egunkarietako hileta oharrek betetzen dituzte. Eta nik nahi nuke egun batean Gernikako bonbardaketaren urteurrenean, hiru eskela agertu beharrean, biderkatuta agertzea. Horrek lana behar du, nik preskakuntza esaten diot. Lan hori egiten ari da zenbait euskal etxetan talde bat, ondo prestatua, duela zenbait urte. Argentinan baditugu 40 dantza talde inguru, Euskal Herriko dantza guz-

tiak dakizkitenak. Etorri diren lehendakariak eta buruzagi politiko guztiak harrituta geratu izan dira Euskal Nazio Astea, euskal etxe guztiek eta bi mila lagun inguruk parte hartzen duten ekitaldian. Eta hogeitaka taldek ez-pata dantza edo beste dantzaren bat egiteak harritu egin ditu, dantzari horiek euskaldunen bilobak eta are birbilobak baitira. Baina dantza taldeez gainera, badaude euskal etxeetara txiki-txikitatik joaten diren umeak, batez ere neskatiak, euskararekin harremanetan jartzeko, oinarrikoena ikasten joateko. Eta hori da bidea gure komunitatea zenbaki bat baino zerbait gehiago izatea nahi badugu.

Zure jarduna ez da Euskal Herria Argentinan ezagutaraztea bakarrik, baizik eta bertako euskal komunitateak egiten duen lana Euskal Herrian bertan ezagutzera ematea ere.

Bai, urtero etortzen naiz Argentinako Errepublikako euskal komunitatearen errealitatea ezagutaraztera. Nire ikuspuntua, jakina. Eta lortu den gauzarik garrantzitsuena nabarmendu nahi nuke: dantza taldeen gainetik, Alkartetxearen sorreraren gainetik: euskara. Lorpen handiak izan dira. Lortu dugu Argentina Euskaraz programa, HABEk eta Euskal Argentinaren Erakundearen Federazioak sinatua, euskararen irakaskuntza arautu eta ebaluatzeke, irakasleak prestatu eta beharrezko gaitasun agiriak izan ditzaten. Irakasle gehienak emakumeak dira, 8/2ko proportzioan. Hori beste xehetasun bat da: Argentinako Errepublikan euskal kulturaren etorkizuna gehienbat emakumeen eskuetan dago. Euskara irakasten hasi ziren bi emakumeak orain dela 25 urte ezagutu nituen nik, eta ez zekiten «bai» ere esaten. Bata nafarren alaba da eta bestea nafarren biloba. Ikastaroez gainera, barnetegiak antolatzen dira, eta batzuetan hona ere etortzen dira, esate baterako Lazkaora. Gogoan dut Henrike Knör nire lagunaren zirrara. Ikusita nago Henrike negarrari ezin eutsita argentinaren gazte batzuk euskaraz mintzatzen ikustean.



Zer jarrera du hango jendeak hemengo egoeraren inguruan? Eta interesek ba al da hemen bertako euskal komunitateaz? Argentinan, Euskal Herriaren errealitate politikoaren eragina aspaldikoa da. Sabino Aranarekiko debozioa zegoen; Komunione-k eta Aberriko jendea zegoen. Egun, gazteen artean, gutxiengoa badira ere, badago gai hauekiko interesa. EH Bilduren aldeko jarrera da nagusi gazte horien artean; gehienak Sorturen inguruan daudela esango nuke, baita EAN

«Euskaldunak beti egon dira europar izanari eta Latinoamerikako lanari lotuta. Espainolek, are gutxiago eskuinak, izan ez duten proiektzio bat izan dute euskaldunek»

ere, eta gustatuko litzaidake han Aralarrek eta Alternatibak ere aldeko jendea izatea. Baina hemen-dik askoz gehiago egin liteke. La-kuako Gobernuak, EA bertan zegoenean, zenbait gauza egin zituen. Unai Ziarreta hara joan zen askotan. Eta beste batzuk ere joan dira, hala nola Karmelo Landa, Askapenako jendea... Hori da nik, hona etortzen naizenean, eskatzen dudana. Horretarako giro aproposa dago han. Orain dela urte dezente Floren Aoizek bisita luzea egin zuen Uruguain eta Ar-

gentinan. Baita Jone Goirizelaiak ere, benetan zirrara eragin zidana, hango jendeak ederki ulertu ziolako –eta «beruneko urteak» ziren–, subiranotasunaz, euskaraz, euskal batasunaz... hitz egin zuenean. Ea EH Bildukoek edo alderdiren batekoek bisita egiten diguten, baina zirkulu itxi batean geratu gabe. Oso ondo iruditzen zait Maiatzeko Amengana joatea, edo Servini de Cubria epailearengana –Gobernu espainiarraren jarrera dela-eta, hortik ez da ezer aterako, eta epaile horrek badaki, baina tira, Argentinaren keinu bat da–, baina konbentzitu behar den jendea ez da konbentzituta dagoena. Zabaldu egin behar dute, eta badira hainbat leku horretarako. Nik eman niezaieke «sukar» handia, erdia edo txikiagoa dagoen lekuen zerrenda. Ongi etorriak izango dira.

2011n Gernikako Akordioa, Aieteko Adierazpena eta borroka armatua uzteko ETaren erabakia heldu ziren. Nola sumatzen da distantziatik bost urte geroagoko egoera?

Ikusten dut alde baten mugimenduen aurrean besteak ez duela zirkunik ere egin, ia txapligu baten hotsaren zain dagoela. Lehen “terrorismo” hitzak dena estaltzeko balio zuen, batez ere euskal arazoez hitz egitea saihesteko. Beren bostean jarraitzen dute, eta argi eta garbi esaten du Barne ministro espainolak. Eta horixe ikusten dugu han ere, setatsu eta gainera bere legedi propioa bete gabe jokatzeko duela Espainiako Gobernuak. Ikaragarria da presoak urrunduta izatea, eta zer esan larri gaixorik daudenez? Hori ikusteko ez da ezkerrekoa, zentrokoa edo eskuinekoa izan behar, prestua besterik ez; Gobernu horri giza eskubideak bost axola zaizkio. Han zirrarak handiena Lizarra-Garazik eragin zuen, euskal abertzaleak bat eginda ikusteak. Kontuan izan euskal etxeetan ez dagoela PP edo PSOEko jenderik. Patxi Lopezek ez zuen bisitarik egin bazekielako euskal etxeetan ez zuela harrerarik topatuko. Han bi bandera baino ez daude: Argentinakoa eta ikurrina. Espainolik ez. Ez monarkikoa ez errepublikanoa.

GAUR8 ireki gure leihoa



MAIDER URIARTE IDIAZABAL

Adiorik ez, Maider

T elefonoz eta ordenagailuz trukatu ditugun azken mezuak berrirakurtzen, Maider. Eguneroko elkarrizketa praktikoak dira gehienak, laneko kontuak eta. Tanta-ka, baina, zure nortasunaren zantzuak ageri dira. Umore fina. Eszeptizismo sa-noa. Kritika zorrotzerako gaitasuna, au-tokritika barne. Euskararen eta euskal-duntasunaren ulerkerak sakon ezohikoa. Lanerako ahalmena, ikerketarako grina.

Irakasle ona izateko ardura eta gogoa. Adimena. “Aldiri” aldizkarian eta GAUR8n ida-tzi dituzun azken artikulua berrirakur-tzen, Maider. Paisaiarekiko pasioa da-rie. Kuriositatea. Landaren eta hiriaren arteko gatazka ulertzeko eta deskriba-tzeko nahia. Ezagutza. Zalantza ondra-duak. Euskal Herritik mundura, mun-dutik Euskal Herrira. Kultura. Gauzen atzean benetan zer dagoen ezagutzeko jakin-mina. Erantzun harroen ordez,

galdera zintzoak. Inguratzen gaituen errealtatearen irakurketa etiko eta, be-reziki, estetikoak. Arkitektura. Burutu ezin izango dugun ikerketa-proiektuan pentsatzen, Maider. Bete-beteen asmatu du zure intuizioak. Eus-kararen bilakaera ere landaren eta hiriaren arteko talkaren baitan ulertu behar. Nazioarteko erreferentziak. Asko bidaiatzeak eman dizun umiltasuna. Kementa. Laguntasuna. Ez adiorik, ilegorri.

IBILBIDEA Maider Uriarte Idiazabal (Colchester, 1981-Bilbo, 2016) arkitektoa zen 2008tik. Metak Arkitektura Tailerra sortu zuen Bilbon. EHUko Arkitektura Saileko beka-duna 2011tik 2013ra bitartean. Ikerketa egonaldiak egin zituen Londresko eta Municheko unibertsitate garrantzitsuetan. 2014ko abendutik EHUko Hirigintza eta Lurralde Antolakuntzako irakaslea. 2015eko urrian Nazioarteko Doktoretza eskuratu zuen. “Aldiri. Arkitektura eta abar” (UEU) arkitekturari buruzko euskarazko aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen 2009an eta 2015etik bertako zuzendari-kidea. GAUR8ko kolaboratzailea ere bazen. Duela aste zenbait hil zen gaixotasun baten ondorioz.

Testua: Unai Fernandez de Betoño. Ilustrazioa: Ibai Gandiaga.



Bilaketa

Saioa Iraola

Etxebizitza aitortua edo ez, urte osorako edo udako bi hilabeteetan husteko: zer da nahi duzuen? Ba... aitortua, urte osorako eta ahalik eta merkeena». Horixe erantzun diogu higiezin agentziako langileak egin digun lehenengo galderari. Ez da makala izaten ari alokairuko etxe bat aurkitzeko saiakera, non eta Zarautzen.

Hogeita hamar urte eta gero, Eusko Legebiltzarrak Etxebizitzaren Legea (3/2015) onartu du, eta bertan, eskubide subjektibotzat jotzen du: «...etxebizitza izateko eskubidea nahitaezkoa da gizakiarentzat...». Zenbait gairi helduko diola paper idatzian iragarri duen arren, oraindik argi-ilun dezentente ditu aferak, etxebizitzaren salneurriak eta alokairuak negozio biribila izaten ja-

rraitzen baitute. Oraindik, etxegabetzeak eguneroko errealitate dira Euskal Herrian, etxebizitzaren salneurriak goraka doaz berriro eta, alokairuko etxebizitzari dagokienez, berriz, oro har baldintza bidegabeak eskatzen dituzte: alokairuko etxebizitza ez deklaratzeko, urte osorako ez izatea, hileko kuota neurrigabea, bankuaren abala, bi hilabetetako fidantza etxe jabeari zuzenean transferentzia bidez ordaintzea...

Hari mataza korapilatua dago oraindik, baldin eta askatze bidean etxebizitza eskubidea berma dadin konpromiso politiko eta pertsonalak ez badira hartzen: hautsak hartzen ari diren etxeei erabilera bat emateko, alokairuko etxebizitza publikoak sustatzeko eta erregulatzeko, etxegabetzeak geldiarazteko, turismoak eta hirugarren

sektore indartsu baten ondorioek zer-nola-ko eraginak dituzten herritarren bizi maila eta aukeren inguruan hausnartzeko eta espekulazioari aurre egiteko neurriak hartzeko. Bitartean, herritar askok herentzian jasotako etxebizitza bat dute, edo hipoteka baten menean zorpetuta biziko dira datozen 50 urteetan, edo gurasoenean bizitzen jarraituko dute betiereko; eta beste asko soldataren zati handi bat etxebizitza gastuetara bideratzera behartuak gaude.

Salbuespenak egon badaudelako eta itxaropena galtzen den azkena delako, bilatzen jarraituko dugu. Hala ere, badaezpada, aukera guztiak aprobetxatu behar direla-eta, irakurleren batek alokatu nahiko lukeen etxe huts bat balu, idatzi mesedez. Eskerrik asko. •

Asto belarriekin

Joxean Agirre

Beste nonbait kontatua dut, baina iraila da, umeak eskolan hasi dira eta beste behin kontatuko dut pedagogia berrietan adituak direnek irakurtzen ikasteko guk umetan erabili genuen metodoa ere kontuan har dezaten. Afrikako tribu batetik inportatua dirudi, baina gure etxean apopilo egon zen maistrak asmatua ere izan zitekeen.

Eskolan sartu orduko makila bana ematen ziguten ume txikienei eta gerlari nano batzuen gisan joaten ginen arbeleraino, eta, han, tamaina handiko (metro erdiko altuera izango zuen) letra bana jartzen ziguten aurrean idatzirik, eta bakoitzak bere letra jotzen hasten ginen, arbelari sekulakoak ematen alegia (behi, idi edo astoaren bizkarrak berotzen ondo entrenatuta zeuden batzuk), letraren izena

oihukatzen genuen bitartean. Bati “A” tokatuko zitzaion, besteari “B” eta hirugarrenari “C”. Guk iskanbila horren erdian ikasi genuen irakurtzen. Inork ezingo du uka metodoa aktiboa ez denik, fisikoa behintzat bai, eta gutxitan ikusi dut, bestalde, irakurketa metodo bat baserri giroan hain ondo txertatzen.

Eskola hartatik ez da Nobel saririk atera, oraingoz behintzat, baina guztiak moldatu dira alde edo moldez bizitzan, nire adineko mutil guztiek atera zuten gida-baimena, denek erosi zuten mendiko autobat, nirea baino askoz handiagoa, eta ezkerreko beso maukarik gabea handik aterata ikusi izan ditut trikitixa piezaren bat kasetean sartuta nire ondotik diosalak eginez igarotzen. Nik neuk ere ikasi nuen irakurtzen eta orain Zizek edo Badiouren

testu zailen bat ulertu ezinik nabilenean eskuineko eskua mugitzen dut nahi gabe, txikitako makila hura mugitzen nuen eran. Hori bai, gure eskolako metodo guztiak ez ziren horren aurrerakoiak. Pentsa, ikasturtea azkena bukatzen zuenak baserri baserri joan behar izaten zuen “*Soy burro*” zioen petoa soinean jantzita, bere amak etxean negar egiten zuen bitartean.

Esan didate ikastola askok Haur Hezikuntzan hormak bota eta espazio zabalak eratu dituztela nagusiak txikiagoekin nahas daitezten. Ez nabil oso enteratuta, baina “txokoetan” uste dut lan egiten dutela. “Joder!”, esan dut nirekiko, «gure eskolan bezala!». Bakarrik han neska nagusien txokoan urtea igarotzen zutela eskulanen orduan azken putz gelditzen zenarentzat petoa eta asto belarriak egiten. •

infraganti LEIRE ELZAURDIA MENDIBERRI

Bertze behin, hitzak soberan daude. Gazte beratararren aurpegiak dena erraten du. Kamerunen bizitakoa barneratzen ari da oraindik baina badaki zoragarria izan dela. Une latzak pasatu ditu, baina aunitzez gehiago izan dira onak. Pobrezia eta desnutrizioa sufritu arren, zoriontsu bizitzen eta disfrutatzen badakitela erakutsi diote.



Leire Elzaurdia Mendiberri Berako gaztea uztailen izan zen Kamerun hegoaldean. Idioia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

Ezin dut sentitzen dudana esplikatu. Nahaste-borraste bat da. Hagitz desberdina da dena eta burua nahasia dut. Puzzleko pieza guztiak izanen banitu bezala da, baina ez lotuak. Oraindik ez dut hangoa barneratu eta ezin dut etorri eta bertze aldera begiratu». Hala hasi zaigu solasean Leire Elzaurdia Mendiberri (Bera, 1993). Hilabete pasatxo da Kamerundik bueltatu zenetik eta begietan distira berezia sumatzen zaio oraindik.

Zerca y Lejos garapenerako gobernuz kanpoko erakundearekin aritu da uztailen herrial-

de afrikarrean lanean, eta bere bidez jarraituko du ahal duen guzian laguntzen, boluntario izanez. Joan den ikasturtean beraiekin eskuz esku ibili zen Madrilén, bertan ari baitzen Optika eta Optometria ikasketak bukatzen. Orain indar gehiagorekin segituko du eta, jakina, egunen batean Kamerunera itzultzeko ilusioa du. «Mundu guztiarentzat gomendagarria den esperientzia bat da», dio ziur.

Bere kasuan, txikitatik izan du amets hori. «Irakasle batek Afrikako bertze toki batean laguntzen izan zela kontatu zigun eta nik ere noizbait egingen nuela erabaki nuen. Hagitz garbi ne-

kien umetatik. Eta ez esperientzia bizi eta ahaztu. Kooperazioaren arloa gustatzen zait».

Karrerako azken urtean irakasle batek gobernuz kanpoko erakunde batean dabilen lagun optometrista bat zuela eta Kamerun hegoaldean lan egiteko laguntza behar zuela azaldu zien. «Nik egingen dut!», erran zuen Leirek segidan. Eta hala hasi zen Pigmeo Baka etniako kideekin integrazio kanpainan parte hartzen. Hamasei kide joan ziren hilabete baterako, mediku, optiko, erizainen artean. Hilabete erdialdean komunikazioko bertze hiru lagun batu ziren. Hiru aldetan egon dira: Bengbis, Minton eta Djoum.

Beratarrak denetarik egin du pixka bat: aste batez optikako zereginak bete zituen oftalmologo batekin; osasun orokorreko kanpainetan ere ibili da, haurren pisua eta altuera neuritzen eta desnutrizioa, tuberkulosia edo malaria bazuten tratamendua jartzen; eta hitzaldiak ere eman ditu, ez dakitelako adibidez eltxo-sarea jarrita malariari aurre hartzen ahal zaiola.

Ikusmen arazo nagusien artean agertzen dira trakoma eta kataratak. Sarri ohituta egoten dira gaizki ikustera eta antiojoak jartzean zoratzen egoten dira. Alkoholaren gaia ere landu dute, «aunitz edaten baitute. ‘Kitoko’ izena duten plastikozko poltsa batzuetan saltzen da edozein lekutan, hagitz-hagitz merke, 5 zentimotan. ‘Zergatik edaten duzue?’ galdetzen genien eta ‘ahazteko’ erantzuten ziguten. Hagitz gogorra. Haurrek ere edaten dute».

FUTBOL ETA ESKUBALOI TXAPELKETAK

Baina une txarrei onak gailentzen zaizkie. Hitzaldiekin batera futbol eta eskubaloi txapelketak egin zituzten inguruko herrietako jendearekin: Alkoholik Gabeko Baka Txapelketa. Janaria eta lo-lekua eskaintzen zieten, eta goizetan hitzaldiak eta arratsaldetan partidak izaten zituzten. Uniformeak eman zizkieten, baita kopak ere, eta zoratzen zeuden. «Polita izan zen. Aste osoan kanpin dendetan, beraien ondoan lo egin genuen. Batzuk

gero partida jokatzeko joaten ziren hitzaldietara, baina bertzeek gogoz parte hartzen zuten».

Bi hitzalditan emakume eta gizonen arteko ezberdintasunez aritu ziren. «Batean emakumeek gehiago parte hartu zuten. Bertzean lotsatuta bezala egon ziren. Batzuek erraten zuten mutilak bakarrik ibiltzen zirela eraikuntzan. Bi etxe mota daude: potopotoak eta munguluak. Lehenak haziekin eginak dira, ongi daude eta gizonak egiten dituzte. Eta bigarrenak iglu antzekoak dira, belarrez eta harripatzen duten guztiarekin osatuak, eta emakumeek egiten dituzte. ‘Emakumeek ere eraikuntzan lan egiten dute, munguluak beraiek egiten dituztelako’ erraten genien. ‘A, egia da’. Ez zuten baloratzen».

Ezberdintasun handiak daude. Adibidez, gizonak nahi adina emakumerekin ezkon edo ibil daitezke, baina emakumeak gizon bakarrarekin.

Pigmeo Baka etniaren eskualde berean bantuak bizi dira. «Hauek bizi maila handiagoa dute, gorputzez ere ikusten da zeintzuk diren pigmeoak eta zeintzuk bantuak. Pigmeoak txikiagoak eta argalagoak dira, eta, bantuak, altuxeagoak. Pigmeoek bantuentsat lan egiten dute batzuetan eta bantuak gainetik daudela sentitzen dute. Guk parean egotea lortu nahi dugu. Bantu batzuk ere etortzen ziren kanpainara. Gatazka pixka bat dute beren artean, baina gehiago da jende helduaren artean, txikiak elkarrekin joaten dira orain eskolara eta ez dute hainbesteko desberdintasunik sentitzen edo egiten».

Zerca y Lejos erakundeko boluntarioak ongi hartzen dituzte. Urteak daramatzate eta ezagutzen dituzte. Bertako jendea ere erakundeko kide da. Formatu egin dituzte bertan lan egiteko (odontologoak, irakasleak...), lortu nahi dutena beraiek han ez egotea baita. Une bat ailegatzea hango jendearekin bizitzak aurrrera egingen duena.

Oraindik bada lana horretarako. «Egun batean zazpi ordu egon ginen bata bertzearen gibeletik haurrei altuera, pisua

eta besoaren zabalera hartzen. Lau kolore bereizten ditugu: berdea, horia, laranja eta gorria. Gorria agertzen bazen guk lo egiten genuen lekura eramaten genituen eta bertako erizaintza lekuan aste bat ematen zuten».

ULERTZEKO ZAILA

Kontatu duenez, batzuetan familiek ez dute umeen adina jakiten eta jaio eta bi urtera jartzen diete izena, hil egiten direnez penarik ez hartzeko. «Egun hartan, haur bat ikusi nuen amaren besoetan. Fitxan bi urte zituela jartzen zuen, baina ez zuen zerikusirik hemengo adin bereko haur batekin. Besoaren neurria hartu nion eta gorria atera zen. Ezin sinetsirik, berriz egin nuen, eta berriz ere gorria atera zen. Hagitz-hagitz pisu txikia zuen, ez zen zutik egoten ahal. Lankide batek eta biok ikusi genuen eta kanpora atera ginen. Negar egin genuen, egoera hori ez zelako posible».

«Ezin dira hango guraso eta umeen erlazioak ulertu, edo ulertzeko denbora behar da. Ez da hemen bezala, han bizirautea da kontua eta arroz plater bat jateko aukera badu guraso batek berak jaten du lehenengo», adierazi du boluntario gazteak.


Baina sentsazioak kontraesan korrak dira, gauean suaren inguruan besta ederrak egiten zituztelako, instrumentuak joz eta dantzatzuz. «Desnutrizioa edo malaria zuen haurra eri ikusten zenuen goizean, baina arratsean dantzan dena ematen. Nola dauden eta gero nola gozatzuten duten, ze alaitasuna eta ze bizia! Une bat ailegatzen da zuk ere goizean ikusitakoa ahanzten duzuna. Baso erdian, izarren azpian... zoratzen geunden! Beraiekin dantzatzera ateratzen gintuzten. Irria ahoan ikusten dituzu. Musika badago dantzan hasten dira, edo baloiarekin ikusten bazaituzte zurekin jolasten dute».

Horregatik, etxera itzultzean ez daki oraindik zer kontatu, alde batetik pobrezia dagoelako baina bertzetik alaiak direla ikusten duelako. «Ulertu egin behar da eta ezin ditugu hemendik epaitu».



Mediku, optiko, erizain eta kazetari artean hemeretzi kide joan ziren Pigmeo Baka etniako kideekin integrazio kanpaina egitera.

ZERCA Y LEJOS



Alaitasun handia topatu dute, bereziki haurrengan.

ZERCA Y LEJOS

Kamerungo jendea ere bada Zerca y Lejos erakundeko kide. Odontologoak, irakasleak... formatu dituzte, lortu nahi dutena bertako jendearekin bizitzak aitzinera egitea baita

Hain ezberdin bizi dira gurekin konparatuta... Batzuk ez dira eskolara joaten eta joaten direnetako batzuek bost ordu egiten dituzte oinez joan eta etorri eta bueltan etxean laguntzen dute. Mutiko batek kontatu zien egunero bost ordu ibiltzen zela eskolara bidean, baina ez zitziola inporta ikasi egin nahi zuelako medikua izateko.

Baso aunitzeko ingurua da Kamerun hegoaldea eta zuhaitzak botatzen egiten dute lan. Kamioi luze-luzeekin garraiatzen dute egurra. Bertze batzuek nekazaritzan dihardute, bideak egiten, eta bertzeek ez dute lanik egiten eta zuhaitzetako fruituetatik elikatzen dira. Pigmeo Baka etniako kide gehienak Kamerun hegoaldean daude, baina Kongoko mugaldean eta Ekuatore Ginean ere bizi dira batzuk. Noizean behin denak elkartu eta besta bat egiten dute. «Bilera horietako batean egon ginen eta

beraiei buruz solas egiten zuten, nola egiten ahal duten aurrera joateko. Ideiak ematen zituzten hezkuntzaz, politikaz, elikaduraz... Ikusten da poliki baina aurrera egiten ari direla».

Joateko motxila prestatzen ari zenean irudikatzen zuenarekin konparatuta topatu duena desberdina da, eta, aldi berean, espero zuena. Kontraesan handi bat da. «Eramateko gauza bat eta bertzea sartu nituen, baina gero konturatzen zara erdia ez duzula erabiltzen, ez duzula behar. Hurrengorako badakit motxila nola egin». Garbi du eman baino aunitzez gehiago jaso duela ere. Une honetan denetara irekita dago. Ikasten segitu nahi du, gehiago formatu han laguntza gehiago emateko, keinu txikiekin munduan aldaketa handiak lortzen ahal direla kontentzitatea dagoelako. •

Maidar lantzi Goienetxe



Whatsapp, Facebook... Telegram!

Nioen ere, ulertzekoa dela. Facebook eta Whatsapp, finean, enpresa handi berberaren zati direlako. Eta baita Instagram eta beste ia 60 filial ere. Eta ulertzekoa da euren arteko informazio-trukaketa. Euren integrazioa, finantzarioa eta teknologikoa. Enpresa handi bat di-

Eta azkenik, nioen, aukera paregabea dela Telegram bezalako alternatibei aukera bat emateko. Seguruagoa, pribatuagoa eta dibertigarriagoa dela. Eta gainera, kode irekikoa dela eta euskaraz erabil daitekeela. Whatsappekiko alternatiba erreal bat izateko osagai guztiak dituela, alegia.

Segurtasuna eta pribatutasuna dira Telegramen bi ezaugarri indartsuenak. Ezkutuko elkarrizketa edo kalaken

Entretenimenduari dagokionez, Telegramek GIFak bidaltzeko eta jasotzeko aukera eskaintzen du. Baita sarean GIFak bilatzeko bilatzaile integratu bat ere. Era berean, *sticker* deitzen diren marrazkiak bidaltzeko eta sortzeko aukera dago, emotikonoetatik harago joanez. Eta Interneteko loturak edo linkak, Telegram barruan irekitzen dira, nabigatzaile baten beharrik gabe.

Baina inoiz ez da berandu aldatetarako. Inguruan eragiteko. Eta gure erabaki pertsonal txikiekin, mundua apur bat aldatzeko. •



Whatsapp, Facebook... edo, zergatik ez, alternatiba gisa, kode irekiko eta euskarazko Telegram? THINKSTOCK

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



EUGENE LEFEVRE-PONTALIS. ARKITEKTURAREN ETA ONDAREAREN MEDIATEKA. KULTURA MINISTERIOA. PARIS, FRANTZIA

OLITEKO GAZTELUA, EUGEN LEFEVRE-PONTALISEN OBRAN

Oliteko gazteluaren argazkia 1910ean egin zuen Eugene Lefevre-Pontalisek, Arkeologia Elkarte frantseseko presidente izan zenak. Bere marrazki eskematikoen osagarri ziren argazkiak, eta irudiok bere artikulu eta hitzaldietan erabiltzen zituen. 1911n frantses Estatuako Monumentu Historikoen Batzordeko kide izendatu zuten. 1923an hila, Arkeologia Elkarte frantsesari utzi zion bere argazki-ondarea. Eraikin, jauregi, eliza, gaztelu eta monumentuetako 14.000 beirazko plakaz osatutako irudi-banku garrantzitsu horretan mundu osoko 40tik gora herrialde daude ordezkaturak. Haien artean, Euskal Herriko ia 300 irudi, 1910 aldera eginak.



DAGOENeko ZURE KIOSKOAN SALGAI

1,5€
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



BIDAIA ALDIZKARIA
7haizetara



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

